

## Gradu Amaierako Lana

Informatika Ingeniaritzako Gradua

Software Ingeniaritza

---

### **Earler: Webguneen irisgarritasuna aztertze arakatzaile-luzapena**

---

*Julen Larrañaga Aguirrezabala*

#### **Zuzendariak**

Juan Miguel López Gil

2023.eko ekainaren 18



# Laburpena

Web irisgarritasunaren helburua, webean kokatzen diren edukiak edonork erabili edo kontsumitu ahal izateko modukoak direla bermatzea da. Web irisgarritasunean oinarritutako estandarrek orrialdeen irisgarritasunaren betetze maila neurtu ahal izateko irizpideak definitzen dituzte, baina neurketa hori egitea konplexua izan daitekeenez, garatzaileei lagundu ahal izateko mota ezberdinetako tresnak sortu dira. Tresnak webgune bidezkoak, luzapenak, liburutegiak, etab. izan daitezke, baina orokorrean funtzionalitate berak eskaintzen dituzte.

Earler luzapenaren bitartez, tresna ezberdinen emaitzak irisgarritasun txostenetan bateratu, eta txostenak erabiltzaileen artean partekatu eta berrerabili ahal izateko funtzionalitateak eskaintzen dira. Gainera, aipatutako tresnen funtzionalitate orokorrak ere inplementatzeaz aparte, txostenak luzapenean bertan, edo nahiago bada WCAG EM Report Tool tresnara igoz, editatzeko aukera ere ematen du. Hori guztia Google Chrome arakatzailerako luzapen bat sortuz eta aparteko zerbitzari batez baliatuz lortu da, eta memoria honen bitartez egindako lan guztia dokumentatuta utziko da<sup>1</sup>.

---

<sup>1</sup>Earler tresnarentzako instalazio gida eranskinen "Instalazio gida" 9.3 atalean dago



# Gaien aurkibidea

<b>Gaien aurkibidea</b>	<b>iii</b>
<b>Irudien aurkibidea</b>	<b>vii</b>
<b>Taulen aurkibidea</b>	<b>x</b>
<b>1 Sarrera</b>	<b>1</b>
1.1 Testuingurua . . . . .	1
1.2 Helburu orokorrak . . . . .	2
<b>2 Erlazionatutako lanak</b>	<b>3</b>
2.1 Arakatzaille-luzapenak . . . . .	3
2.2 Webguneak . . . . .	6
2.3 Liburutegiak, toolkitak, etab. . . . .	10
2.4 AC-Check . . . . .	11
2.5 Tresna gehiago . . . . .	12
2.5.1 Webguneak . . . . .	12
2.5.2 Luzapenak . . . . .	12
2.5.3 Bestelakoak . . . . .	12
<b>3 Plangintza</b>	<b>13</b>
3.1 Irismena . . . . .	13
3.1.1 Helburu zehatzak . . . . .	13
3.1.2 Eskakizunak . . . . .	13
3.1.3 Baztertutakoen deskribapena . . . . .	15
3.1.4 Emangarriak . . . . .	16
3.1.5 Lan paketeak . . . . .	16
3.2 Atazak egingo diren denboraldiak eta emangarriak bukatzeko datak . . . . .	17
3.2.1 Egin beharreko atazen deskribapena . . . . .	17
3.2.2 Atazen garapen denboraldiak . . . . .	20
3.3 Ataza bakoitzari emango zaion denboraren estimazioak . . . . .	21
3.4 Proiektuko informazio eta komunikazio sistemak . . . . .	23
3.4.1 Informazio sistema . . . . .	23
3.4.2 Komunikazio sistema . . . . .	23
3.5 Arriskuak . . . . .	23
<b>4 Trebakuntza</b>	<b>25</b>
4.1 Zerbitzari berria . . . . .	25

4.1.1	Luzapenerako argazkiak . . . . .	25
4.1.2	CORS arazoak . . . . .	26
4.1.3	Zerbitzariko eskaerak nola jaso eta kudeatu aurkitu . . . . .	26
4.2	React, JSON-LD eta Puppeteer ikasten . . . . .	26
<b>5</b>	<b>Diseinua</b>	<b>27</b>
5.1	Erabilpen kasuen diagrama . . . . .	28
5.1.1	Aktoreak . . . . .	28
5.1.2	Erabilpen kasuak . . . . .	28
5.2	Datu-basearen diseinua . . . . .	30
5.3	Erabilpen kasuen sekuentzia diagramak . . . . .	31
5.3.1	Login . . . . .	31
5.3.2	Register . . . . .	31
5.3.3	Logout . . . . .	32
5.3.4	Evaluate selected scope . . . . .	33
5.3.5	Remove current report . . . . .	35
5.3.6	Download current report . . . . .	35
5.3.7	Upload report file . . . . .	36
5.3.8	Store current report . . . . .	36
5.3.9	Load stored report . . . . .	37
5.3.10	Edit found cases . . . . .	37
5.4	Luzapenaren diseinu grafikoa . . . . .	39
5.4.1	Luzapenaren oinarritzko egoerak . . . . .	39
5.4.2	Erregistratzeko eta kontuan sartzeko egoerak . . . . .	40
5.4.3	Datu-basean gordetako ebaluaketa txostenak kargatzeko egoera . . . . .	41
5.4.4	Emaitza taulak . . . . .	42
5.5	Irisgarritasun txostenen formatua . . . . .	43
<b>6</b>	<b>Inplementazioa</b>	<b>51</b>
6.1	Luzapenaren implementazioa . . . . .	51
6.1.1	React "components" edo osagaiak . . . . .	51
6.1.2	Osagaien estiloak . . . . .	57
6.1.3	Funtzio erabilgarriak . . . . .	58
6.1.4	Interfaze grafikoaren diseinu finala . . . . .	60
6.1.5	Funtzionalitate gehigarriak . . . . .	66
6.2	Zerbitzariaren implementazioa . . . . .	68
6.2.1	Zerbitzariari egindako eskaeren kudeaketa . . . . .	68
6.2.2	ScrapingController . . . . .	69
6.2.3	UserController . . . . .	70
6.2.4	ReportController . . . . .	71
6.3	Aurkitutako arazoak . . . . .	72
6.3.1	Estiloen arazoak . . . . .	72
6.3.2	LocalStorage arazoak . . . . .	72
6.3.3	Scraping egitearen arazoak . . . . .	72
6.3.4	HTML elementuak eskuratzeko erreferentziekin arazoak . . . . .	73
6.3.5	Ebaluaketa automatikoen arazoak . . . . .	73
<b>7</b>	<b>Probak</b>	<b>75</b>

7.1	Ebaluaketa automatikoen probak . . . . .	75
7.1.1	Denbora probak . . . . .	75
7.1.2	Emaitzen test kasuak . . . . .	78
7.2	Txostenen emaitzak aldatzeko probak . . . . .	82
7.2.1	Irizpide bateko aurkitutako kasuen ezabaketa . . . . .	82
7.2.2	Irizpide bateko kasu baterako ebaluatzaileen ezabaketa . . . . .	82
7.2.3	Irizpide bateko kasu baterako edizioa . . . . .	84
7.3	Txostenak datu-basean gorde eta bertatik kargatzeko probak . . . . .	86
7.3.1	Txostenak gordetzea . . . . .	86
7.3.2	Txostenak kargatzea . . . . .	88
<b>8</b>	<b>Jarraipen eta kontrola</b>	<b>91</b>
8.1	Atazen dedikazio denboren desbiderapenak . . . . .	91
8.2	Garapen denboraldien desbiderapenak . . . . .	94
<b>9</b>	<b>Ondorioak</b>	<b>95</b>
9.1	Ondorioak . . . . .	95
9.2	Ikasitakoa eta esperientzia pertsonala . . . . .	96
9.3	Etorkizunerako hobekuntza posibleak . . . . .	96
	<b>Eranskinak</b>	<b>99</b>
	<b>Erabilitako tresnak</b>	<b>101</b>
	AccessMonitor . . . . .	101
	AChecker . . . . .	101
	A11y . . . . .	101
	Body-parser . . . . .	101
	ChatGPT . . . . .	101
	Chrome arakatzailleko luzapenentzako baliaibideak . . . . .	101
	Cors . . . . .	102
	Diagrams . . . . .	102
	Express . . . . .	102
	GitHub . . . . .	102
	GlooMaps . . . . .	102
	JSDoc . . . . .	102
	JavaScript . . . . .	102
	Lighthouse . . . . .	102
	Mauve++ . . . . .	103
	Node.js . . . . .	103
	Nodemon . . . . .	103
	Online Gantt . . . . .	103
	Overleaf . . . . .	103
	Pa11y . . . . .	103
	Puppeteer . . . . .	103
	React . . . . .	103
	React-spinners . . . . .	103
	Sass . . . . .	104
	Sqlite3 . . . . .	104

XPath . . . . .	104
<b>Instalazio gida</b>	<b>105</b>
Node.js instalatzen . . . . .	105
Earler deskargatu eta martxan jartzen . . . . .	106
<b>Bibliografia</b>	<b>109</b>



# Irudien aurkibidea

2.1	AInspector luzapena ehu.eus webgunean . . . . .	3
2.2	AInspector zerrendako elementua gorritz nabarmenduta . . . . .	4
2.3	WAVE luzapena ehu.eus webgunean . . . . .	4
2.4	WAVE irisgarritasun irizpidea ikusteko "Reference" atala . . . . .	5
2.5	AccessMonitor ebaluaketa egin aurretiko orrialdea . . . . .	6
2.6	Mauve++ orrialdearen ebaluaketa . . . . .	7
2.7	Mauve++ adierazitako hainbat orrialde aldi berean . . . . .	8
2.8	Mauve++ sakonera bateraino ebaluatu . . . . .	8
2.9	Mauve++ orrialdea grafikoki ikusteko eremua . . . . .	9
2.10	Lighthouse tresnaren hasierako interfazea . . . . .	10
2.11	Lighthouse irisgarritasun ebaluaketa emaitzak . . . . .	11
3.1	Proiektuaren WBS/LDE diagrama . . . . .	17
3.2	Hasierako Gantt diagrama . . . . .	20
4.1	manifest.json konfigurazio fitxategian luzapeneko argazkiak adierazteko . . . . .	25
5.1	Erabilpen kasuen diagrama . . . . .	28
5.2	Erabiltzaileak gordetzeko taula . . . . .	30
5.3	Txostenak gordetzeko taula . . . . .	30
5.4	Login sekuentzia diagrama . . . . .	31
5.5	Register sekuentzia diagrama . . . . .	32
5.6	Logout sekuentzia diagrama . . . . .	32
5.7	Evaluate selected scope sekuentzia diagrama . . . . .	34
5.8	Remove current report sekuentzia diagrama . . . . .	35
5.9	Download current report sekuentzia diagrama . . . . .	35
5.10	Upload report file sekuentzia diagrama . . . . .	36
5.11	Store current report sekuentzia diagrama . . . . .	36
5.12	Load stored report sekuentzia diagrama . . . . .	37
5.13	Edit found cases sekuentzia diagrama . . . . .	38
5.14	WCAG EM Report Tool tresnako botoien diseinua . . . . .	39
5.15	Luzapena oinarritzeko egoera . . . . .	40
5.16	Kontuan sartzeko eta erregistratzeko egoerak . . . . .	41
5.17	Datu-baseko txostenak kargatzeko egoera . . . . .	41
5.18	Aurreko urteko taulen diseinua . . . . .	42
5.19	WCAG EM Report Tool 1.pausua . . . . .	46
5.20	WCAG EM Report Tool 2.pausuko azpiatala . . . . .	46
5.21	WCAG EM Report Tool 5.pausua . . . . .	47

5.22	WCAG EM Report Tool 4.pausua irizpide bateko emaitzak	49
6.1	Luzapeneko React osagaiak	52
6.2	Extension osagaiak itzultako zati nagusia	52
6.3	UserAuthentication osagaiak itzultako zati nagusia	53
6.4	Erabiltzaileak sartutako web orrialdeak zerrendatzeko	53
6.5	Defektuzko ebaluatzaileen aukeraketarako checkbox elementuen egoera	54
6.6	Checkbox elementuak zerrendatzeko eta erakusteko kodea	54
6.7	Erabiltzaile guztientzako aukerak	54
6.8	Kontuan sartutako erabiltzaileentzako aukerak	55
6.9	Datu-basean gordetako txostenak erakusteko taularen egitura	55
6.10	Erabiltzaileak kontuan izan nahi duen conformanceLevel aukeratzeko kodea	56
6.11	Kargatutako txostenaren emaitzak erakusteko kodea	56
6.12	Koloreak berrerabiltzen	57
6.13	Sass webguneko argazkia nesting kontzeptua ulertzeko	57
6.14	Proiektuko estilo fitxategi guztiak	58
6.15	Zerbitzarira eskaerak egiteko funtzioa	58
6.16	Orrialdeko elementuak eskuratzeko funtzioa	59
6.17	Datu-basean gordetako txostena lortzeko funtzioa	59
6.18	Ebaluatzaile aukeren atala aldatua	60
6.19	Evaluation scope atalaren diseinu finala	60
6.20	Select evaluators atalaren diseinu finala	61
6.21	Login eta Register formularioen diseinu finala	61
6.22	Datu-baseko txostenak kudeatzeko diseinua	62
6.23	Aukeratutako conformance level eta laburpen taulako tab-aren arabeko emaitzak	63
6.24	Webgunea ebaluatu da baina orrialdea ez	63
6.25	Ebaluaketa emaitzen adibidea	64
6.26	Irizpideen emaitzak aldatzen	64
6.27	Erreferentziei dagokien kode zatiak urdinez koloreztatuta	65
6.28	Aukeratutako erreferentzia gorri koloreztatuta	65
6.29	Luzapena alde batean ezkutatzeko funtzionalitatea	66
6.30	Nabarmendutako elementuan kurtsorea jartzean azaltzen den popup elementua	67
6.31	Luzapeneko konfigurazio orria	67
6.32	Zerbitzariko eskaeren kudeaketarako index.js fitxategia	68
6.33	ScrapingController ebaluaketa automatikoa	69
6.34	Ebaluatzaileen ebaluaketa txostenak bateratzeko funtzioa	70
6.35	Erabiltzailea datu-basean erregistratzeko kodea	70
6.36	Erabiltzailea datu-basean dagoen egiaztatze kodea	71
6.37	Datu-basetik txostena ezabatzeko funtzioa	71
7.1	ACT test kasuen JSON fitxategiaren egitura	79
7.2	1.1.1 irizpideko kasuak kentzen	82
7.3	1.3.1 irizpideetatik ebaluatzaileak kenduko dizkiogun failed kasua	83
7.4	1.3.1 irizpideko failed kasuko ebaluatzaileak kentzen	84
7.5	1.3.1 irizpideko cantTell kasuan edizio moduan sartu eta aldaketak egin	85
7.7	Txostena igotzean ikusten den mezua	86
7.8	ehu.eus webguneko igotako 3 txostenak	87

7.9	ataria.eus webgunerako igotako txostena . . . . .	87
7.10	Txostenen taulak . . . . .	88
7.11	ataria.eus webgunerako txosten bakarra ezabatzean . . . . .	89
7.12	azken txostena igo ondoren guraso bera duten bi txosten ditugu . . . . .	89
8.1	Amaierako Gantt diagrama . . . . .	94
1	Node.js ingurunearen webguneko deskargen orrialdea . . . . .	105
2	Node.js instalatzeko dependentzien aukera . . . . .	106
3	Zerbitzaria martxan jartzean ikusten dena . . . . .	107
4	Luzapena inportatzeko lehen pausua . . . . .	107
5	Luzapena inportatzeko bigarren pasua . . . . .	107

# Taulen aurkibidea

3.1	Estimatutako ataza bakoitzeko dedikazioa . . . . .	22
5.1	Emaitzentzako kolore paleta . . . . .	42
7.1	ehu.eus webgunerako ebaluaketa automatikoen denbora probak . . . . .	76
7.2	ataria.eus webgunerako ebaluaketa automatikoen denbora probak . . . . .	76
7.3	The Majestic Million zerrendatik ebaluatuko ditugun hoberen klasifikatutako 8 webguneak . . . . .	77
7.4	google.com webgunerako ebaluaketa automatikoen denbora probak . . . . .	78
7.5	facebook.com webgunerako ebaluaketa automatikoen denbora probak . . . . .	78
7.6	Ebaluatzaile bakoitzak testak pasatzean jasotako emaitzak . . . . .	80
7.7	Gutxieneko passed kopurua izan dituzten test kopuruak . . . . .	80
7.8	Ebaluatzaile guztien arteko konbinazio hoberenak . . . . .	81
7.9	AChecker kenduta, gainontzeko ebaluatzaileen arteko konbinazio hoberenak . . . . .	81
8.1	Estimatutako eta errealitatean dedikatutako ataza ahoitzeko denborak orduetan . . . . .	93

# Sarrera

Dokumentu hau Julen Larrañaga Aguirrezabalaren Informatikako Ingeniaritzako Gradu Amaierako Lanaren memoria da. Proiektua Juan Miguel López Gil tutorearen gidaritzapean garatu da, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Donostiako Informatika Fakultatean.

Memoria honen bitartez Earler [1] izeneko proiektua aurrera eramateko egindako lana azalduko da, aurreko urtean Mikel Iturriak bere Gradu Amaierako Lanaren garatu zuen AC-Check [2] luzapenaren jarraipena izanik.

Kapitulu honen bitartez, proiektuaren testuingurua zehaztu eta helburu orokorrak zeintzuk diren azalduko dira. Helburu orokor horiek betetzeko definitu beharreko helburu zehatzak, aurrerago plangintza kapituluko irisgarritasunari dagokion atalean zehaztuko dira, ikus 3.1.1 helburu zehatzen atala.

## 1.1 Testuingurua

Web irisgarritasunaren helburua, webean kokatzen diren tresnak edonork erabili ahal izateko modukoak direla bermatzea da, hau da, desgaitasuna duen pertsona batek gai izan behar du beste edonork erabil ditzakeen tresna berberak erabili, edota kontsumitu ditzakeen edukia kontsumitu ahal izateko ere.

Horretarako, webguneetan berregokitzapenak egin eta baliabide espezializatu edota berezituak eskaini behar dira. Web irisgarritasunean oinarritutako estandarren bitartez, guneen baliabide horien inplementatze eta egokitze mailak neurtu daitezke. Hori kontuan izanda, webgune baten irisgarritasuna neurtzen dela esatean, webgune horren domeinuan kokatzen diren orrialdeen betetze maila neurtzen dela adierazten da.

Aipatutako estandar horiek, World Wide Web Consortium edo W3C-k zehaztutako irisgarritasun estandarrak [3] dira, irisgarritasuna bermatzeko moduaren arabera sailkatuak. Adibidez, jarraibideak definitzen dituztenetakoak nagusiki hiru dira: Authoring Tool Accessibility Guidelines edo ATAG, User Agent Accessibility Guidelines edo UAAG eta Web Content Accessibility Guidelines edo WCAG. Beste estandar baten adibide bat, Accessible Rich Internet Applications edo WAI-ARIA izango litzateke, kasu honetan irisgarritasuna bermatzeko zehaztutako teknikoak ezartzen dituenak.

Ikus daitekeenez, hainbat estandar daude, eta horietako bakoitzak barrutik konplexutasun handia du. Hori dela eta, irisgarritasuna bermatzeko prozesuan estandarrek definitutako arauak banan-banan irakurri eta betetzen diren ikusteak lan asko eskatzen du, eta ondorioz, garatzaileei lana erraztu eta laguntza emateko, estandarretan oinarritzen diren mota ezberdinetako tresnak sortu dira: webguneak, arakatzailentzako estentsio edo luzapenak, liburutegiak, etab. [4, 5]

Tresna horiek antzekotasun handia izaten dute, eta orokorrean oinarritzko baliabideak eskaintzen dituzte. Hau da, erabiltzaileak ebaluatu nahi duen webgune edo orrialdearen esteka emanda, irisgarritasuna automatikoki aztertze, irizpideen betetze mailak adierazteko, dagozkien kode zatiak nabarmentzeko, eta egindako azterketen datuak jasotzen dituzten fitxategi edo txostenak jaitsi ahal izateko aukerak izaten dituzte.

Horretaz aparte, nahiz eta tresna bakoitzak bere ezaugarri eta berezitasunak izan ditzakeen, aipatutakoez gain ez dute oso interesgarria edo lagungarria izan daitekeen baliabide gehigarri eskaintzen.

### **1.2 Helburu orokorrak**

Hori guztiagatik, proiektu honen helburu nagusia, webguneen irisgarritasunak aztertze prozesuan erabiltzaileei ahalik eta laguntza handiena ematen dien produktu bat garatzea da. Horretarako, dagoeneko sortutako tresnen alderdi onak bildu eta erabiltzaileentzako erabilgarriak izan daitezkeen baliabide berriak eskaini beharko ditu.

Gainera, lan honen beste helburu orokor bat nire informatika ingeniartzako hezkuntza prozesuan beste pausu bat ematea da, graduan zehar ikasitakoa praktikan jarritz, eta orokorrean garatzaile batek lan egiteko izan beharreko gaitasunak landuz.

## Erlazionatutako lanak

Sarreran aipatu bezala, web orrialdeen irisgarritasuna aztertzeko tresna mordera dago dagoeneko. Hori dela eta, proiektuarekin hasi aurretik, web irisgarritasun analisirako tresna ezberdinen azterketa bat egitea komenigarria da. Modu horretara, dagozkien ezaugarri interesgarriak kontuan hartu eta izan ditzaketen gabeziak garatuko dugun tresnaren bitartez hobetzen saia gaitezke.

### 2.1 Arakatzaille-luzapenak

Luzapenekin hasiz, normalean unean kokatutako web orrialdea automatikoki ebaluatu eta emaitzak taula edo zerrenda moduko batean erakusten dute. Modu horretara, zerrendako elementuetan sakatzean, lortutako emaitzak orrialdean bertan koloreztatuz edota kutxetan sartuz nabarmentzeko joera izaten dute. Adibidez, Firefox arakatzailleko AInspector [6] tresnaren kasuan, aipatutako izaera hori nabarmena da, ikus 2.1 eta 2.2 irudiak.


The screenshot shows the AInspector tool interface. At the top, there's a browser address bar with the URL 'https://www.ehu.es/es/home'. Below it, the AInspector summary shows 'Summary: All Rules' with a 'Back' button and 'Views' dropdown. A summary bar displays counts for Violations (6), Warnings (3), Minor Catches (39), and Passes (31). Below this is a table of WCAG Guidelines with columns for Violations (V), Warnings (W), Minor Catches (MC), and Passes (P).

Guideline	V	W	MC	P
1.1 Text Alternatives	0	0	4	3
1.2 Time-based Media	0	0	0	0
1.3 Adaptable	5	1	5	7
1.4 Distinguishable	0	0	4	0
2.1 Keyboard Accessible	0	0	1	1
2.2 Enough Time	0	0	2	0
2.3 Seizures	0	0	1	0
2.4 Navigable	0	2	8	9
3.1 Readable	0	0	1	1
3.2 Predictable	0	0	6	0
3.3 Input Assistance	0	0	5	4
4.1 Compatible	1	0	2	6
All Rules	6	3	39	31

At the bottom of the interface, there are buttons for 'Preferences', 'Rerun Evaluation', and 'Export Data'. The page title is 'Inicio - UPV/EHU' and the location is 'https://www.ehu.es/es/home'. On the right side, there's a search bar and a list of profiles including 'Alumnado', 'Futuro alumnado', 'EHUalumni', 'Profesorado', and 'Personal de Administración y Servicios'.


2.1 Irudia: AInspector luzapena ehu.es webgunean

## 2. ERLAZIONATUTAKO LANAK



2.2 Irudia: AlInspector zerrendako elementua gorritz nabarmenduta


Beste adibide bat, Google Chrome arakatzailerako WAVE Evaluation Tool [7] luzapena izango litzateke. Kasu honetan, elementu guztiak zuzenean nabarmenduta etortzen dira, eta ondoren zerrendan aukeraketa egin daiteke, ikus 2.3 irudia. Erabiltzen dituen kuxkak eta irudiak ezagutzen badituzu ikusterekin bakarrik asko lagundu dezakete, baina begi-bistakoa denez, orrialdean egiten dituen aldaketak gehiegizkoak suerta daitezke, erabiltzailea nahasteko arriskuarekin.



2.3 Irudia: WAVE luzapena ehu.es webgunean

Gainera, AlInspector tresnaren aurkako jokabidea du aurkitutako arazoa zein irisgarritasun irizpideri dagokion jakiteko, hau da, 2.3 argazkian azaltzen den zerrendako informazio botoietan klikatu behar da, ondoren dagokion "Reference" atalean dagokion irizpidea ikusi ahal izateko, ikus 2.4 irudia.





#### 2.4 Irudia: WAVE irisgarritasun irizpidea ikusteko "Reference" atala


Aurreko 2.1 irudian ikusten zen bezala, AInspector-ek zuzenean WCAG irizpide multzoetan zerrendatzen ditu. Horri esker, baliteke garatzailea den erabiltzaile batentzako datuak ikuskatzeko modu erosoagoa izatea.

Horretaz aparte, WAVE tresnak baliabide gehigarri batzuk ere ditu. Adibidez, koloreen erabilera egokiagoa egin ahal izateko "Contrast eremu bat du, orrialdeen HTML-a nola egituratuta dagoen ikusteko beste eremu bat, etab. baina gure kasuan, irizpide konketuak konpontzera bideratutako horrelako funtzionalitate espezifikoetan ez gara sartuko.

## 2.2 Webguneak

Webgune motako tresnen aldetik, aipatutako luzapenen oso antzekoak diren oinarriko baliabideak eskaintzen dituzte. Horien alde garrantzitsua, ebaluatu nahi den orrialdean kokatzen ez direla da, hau da, hasierako orrialdean erabiltzaileak aztertu nahi duen orrialderako esteka eskatzen dute, eta denbora bat ebaluatzen pasa ondoren emaitzak erakusten dituzte.

Erabiltzaileak emaitzak lortzeko itxaron egin behar duenez, luzapenekiko desabantaila bat suposa dezake, baina aldi berean, ebaluazioa egin ahal izateko ez da beharrezkoa esteka bat pasatzea. Adibidez, aurreko urtean Mikelek erabili zituen AccessMonitor [8] eta AChecker [9] webguneetan, ebaluatu nahi den orrialdearen kodea zuzenean fitxategi batean edo testuz emateko aukera dute, ikus 2.5 irudia. Beste adibide bat Mauve++ [10] ebaluatzailearena izango litzateke aipatutako beste bi kasu horien aukera berak eskaintzen dituen, ikus 2.6 irudia.



**2.5 Irudia:** AccessMonitor ebaluaketa egin aurretiko orrialdea

The screenshot shows the 'Single page evaluation' interface of the Mauve++ tool. At the top, there is a navigation bar with links for 'Home', 'About', 'Info', 'Bug report', and 'Accessibility guidelines'. A 'Start New Evaluation' button and a 'Log in' link are also present. Below the navigation bar, the main heading reads 'Single page evaluation'. The interface is divided into three sections: 'Your URL', 'Your File', and 'Your Code'. The 'Your URL' section contains a text input field with the placeholder 'Enter the URL you would like to check' and a 'VALIDATE' button. The 'Your File' section is currently empty. The 'Your Code' section is also empty. Below these sections, there is a section titled 'YOUR CONTENT WILL BE VALIDATED AGAINST:'. This section includes a 'Level of conformance' dropdown menu set to 'AA', with radio buttons for 'WCAG 2.1' (selected) and 'WCAG 2.0'. There are also radio buttons for 'Static Web Page Validation (faster)' (selected) and 'Server Side Rendering Validation (slower but more precise)'. Below this, there is a 'SELECT A DEVICE' section with a 'User Agent' dropdown menu set to 'DESKTOP - Windows - Chrome'.

### 2.6 Irudia: Mauve++ orrialdearen ebaluaketa

Horretaz aparte, Mauve++ tresnak oso interesgarria den berezitasun bat du: webgune bateko orrialde bakarra ebaluatu beharrean, webguneko hainbat orrialde edota sakonera zehatz batetaraino ebaluatzeko aukerak ditu, ikus [2.7](#) eta [2.8](#) irudiak.

Agian sakonera implementatzearena gehiegizkoa izango zen, baina erabiltzaileak hainbat orrialde ebaluatzeko zehaztuz automatikoki denak batera ebaluatzeko aukera eskaintzea aproposa izango litzateke gure tresnarako.

# New Project

## Project title

Enter the project title

## Select project type

Single page  Simplified  In depth

### STANDARD

3.2. (a) The home, login, sitemap, contact, help and legal information pages

Homepage

https://

Login

https://

Sitemap

https://

Help page

https://

Add Standard URL

## 2.7 Irudia: Mauve++ adierazitako hainbat orrialde aldi berean

# New Project

## Project title

Enter the project title

## Select project type

Single page  Simplified  In depth

Enter the URL you would like to check

### PARAMETERS:

Max number of pages

1

Max depth

1

### FREQUENCY:

Repeat:

Just once

On:

Thursday

### SELECT A DEVICE

User Agent

DESKTOP - Windows - Chrome

### YOUR CONTENT WILL BE VALIDATED AGAINST:

Level of conformance

WCAG 2.1  WCAG 2.0

AA

CREATE PROJECT

## 2.8 Irudia: Mauve++ sakonera bateraino ebaluatu

Kontuan izateko beste gauza bat, mota honetako tresna batzuek aztertutako orrialdeak eta irisgarritasun irizpideei dagozkien kode zatiak erakusten ez dituztela da. Adibidez, Mauve++ tresnak "Live preview" izeneko eremu baten bitartez erakusten du, ikus 2.9 irudia, baina AChecker tresnak ez du horrelakorik, segur aski zaharkitu xamarra dagoelako.

## 2.2. Webguneak

### 2.9 Irudia: Mauve++ orrialdea grafikoki ikusteko eremua

Gainera, Mauve++ tresnaren beste alderdi interesgarri bat, ebaluazio txostena jaisteko garaian JSON-LD formatua eskaintzen duela da, JSON normala beharrean. Horri esker, irisgarritasun txostenek egitura estandarragoa dute WCAG irizpideak betetzeko garaian, hori ere kontuan izateko gauza bat izanik.


### 2.3 Liburutegiak, toolkitak, etab.

Aurrekoez aparte, tota11y [11], Sa11y [12] eta pa11y [13] bezalako "toolkit" edo liburutegi moduko tresnak ere badaude, aztertu beharreko HTML testuan bertan JavaScript fitxategien erreferentzien bitartez edo zuzenean liburutegiek eskaintzen dituzten funtzioei dei eginez erabil daitezkeenak.


Adibidez, Tota11y tresnaren kasuan, HTMLan script bat ezarri, botoi bat agertzen da orrialdearen bazter batean, non bertan sakatzen badugu irismenari buruzko informazioa eskaintzen duen. Aldiz, Pa11y-ri dagokionez, liburutegiak dakarren funtzio bati deitu eta emaitzak JSON formatuan itzultzen ditu garatzaileak nahi duen bezala erabili ahal izateko. Hori kontuan izanda Pa11y motako liburutegiak gure tresnan erabiltzea erreza izango litzateke.

Gainera, web nabigatzaileek ere beraien barruan irisgarritasuna aztertzeko tresnak implementatuta dituzte. Firefox-ek eskaintzen duena ez da oso erabilgarria, batez ere aurretik ikusitako tresnekin alderatuta, baina Google Chromek "DevTools" delako garatzaile tresnetan implementatua duen Lighthouse [14] liburutegia oso erabilgarria da. Kasu honetan nabigatzaileak barnean dakar implementatuta, baina aparteko Node.js-ko liburutegi moduan [15] ere eskuragarri dago.

Lighthouse zuzenean Chrometik erabiltzeko, lehenik ebaluatu nahi dugun orrialdean kokatu, "Categories" atalean "Accessibility" aukeratuta dagoela ziurtatu, ikus 2.10 irudia, eta analisia egiteko botoiari eman ondoren ebaluazioa automatikoki gauzatzen du. Bukatzean, emaitzak zerrenda moduko batean erakusten ditu, aurreko tresnetan ikusi dugun antzera, arazo bakoitza konpontzeko dokumentaziorako estekak eskainiz, ikus 2.11 irudia.



2.10 Irudia: Lighthouse tresnaren hasierako interfazea



2.11 Irudia: Lighthouse irisgarritasun ebaluaketa emaitzak

## 2.4 AC-Check

Aurten garatuko dugun Earler tresna aurreko urteko AC-Check luzapenaren jarraipen bat izango denez, gutxienez aurrekariaren ezaugarri garrantzitsuenak eta izan ditzakeen mugak aipatu beharra daude.

Bere bereizgarri garrantzitsuenetarikoa, irisgarritasuna aztertzeko ebaluatzaile ezberdinen emaitzak bateratzea eta txosten bakarrean eskaintzea izango litzateke. Ebaluatzaile ezberdinen emaitzak bateratzeko funtzionalitatea ondo dago, batez ere ebaluatzaile bakoitzaren gabeziak besteek oreka ditzaketelako, baina bakarrik AChecker eta AccessMonitor aukerak eskaintzen dituzenez errealitatean ez da propietate hori guztiz aprobetxatzen. Gainera, bi aukera horiek webgune motakoak direnez, ebaluazio prozesuak liburutegiak erabili izango baziren baina nahiko motelagoak dira.

Horretaz aparte, ebaluazio txostenak jaitsi eta ondoren WCAG EM Report Tool [16] tresnara igo eta eskuz editatu ahal izateko aukera ematen du, baina aldaketa horiek norberaren fitxategian egiten dira, gainontzeko erabiltzaileekin modu errazean partekatzen baliabiderik eskaini gabe. Partekatze hori egitea interesgarria izango litzateke, adibidez, erabiltzaile batek egindako lana gainontzekoek berrerabiltzeko aukera izateko.

## 2.5 Tresna gehiago

Aipatutakoez aparte, tresna gehiago ere begiratu ditugu:

### 2.5.1 Webguneak

- [WAVE](#)
- [ACCESSIBILITY Checker](#)
- [AccessiBe](#)
- [Taw](#)

### 2.5.2 Luzapenak

- [Siteimprove](#) (Google Chrome)
- [LERA](#) (Google Chrome)
- [WAVE Accessibility Extension](#) (Firefox)
- [Tota11y](#) (Firefox)

### 2.5.3 Bestelakoak

- [Axe-core](#)
- [Tenon.io API](#)



## Plangintza

Kapitulu honetan, proiektua nola antolatu eta gauzatuko den planifikatuko dugu. Horretarako proiektuaren irismena, atazak egingo diren denboraldiak eta emangarriak bukatzeko datak, atazei emango zaizkien denboren estimazioak, proiektuko informazio eta komunikazio sistemak eta arriskuak zehaztuko dira.

### 3.1 Irismena

#### 3.1.1 Helburu zehatzak

Honakoak dira proiektua garatzerakoan helburu orokorrak bete ahal izateko kontuan izan beharreko helburu zehatzak:

- Estandarretan oinarrituz, eta ebaluatzaile ezberdinak erabiliz, webguneen irisgarritasun azterketak automatikoki egiteko tresna bat garatzea.
- Azterketekin lortutako emaitzak modu errazean ikuskatzeko eta editatzeko baliabide ezberdinak eskaintzea.
- Emaitzak ebaluazio txostenetan bilduz, horiek kudeatzeko eta erabiltzaile ezberdinen artean partekatzeko sistema garatzea.
- Garapenerako, lan munduan erabiliak diren eta ezagutzen ez ditudan tresna berriak erabiltzea, eta aurretik garatutako kodea ulertzeko eta refaktORIZATZEKO gaitasuna lortzea.

#### 3.1.2 Eskakizunak

Proiektu honek arrakasta izan dezan, sortutako emangarriek tutoreak aipatutako eskakizunak bete beharko dituzte. Hasteko, proiektu hau aurreko urtean garatutako AC-Check tresnaren jarraipena denez, hainbat ezaugarri mantendu beharko ditu:

- Earler tresna Google Chrome arakatzailerako luzapena izaten segi beharko du.

### 3. PLANGINTZA

---

- Aurreko urteko funtzionalitate guztiak mantendu beharko dira.
- W3C-ren irisgarritasun estandarretatik WCAG 2.1 estandarra izango da erabiliko dena.
- Luzapenez aparte, horren funtzionamendu egokirako zerbitzari bat izaten jarraituko da.
- Ebaluazio txostenek, WCAG EM Report Tool tresnan igotzeko eta bertan editatzeko modukoak izan beharko dute.

Mantendu beharrekoak ezaugarriez aparte honako beste ezaugarriak ere bete beharko direla zehaztu da:

- Luzapenean bertan txostenen aldaketak egin ahal izateko aukerak ematea, eta aldaketa horiek ebaluazio berriak egitean babestea editatutako datuak galdu ez daitezen. Noski, WCAG EM Report Tool tresnara igota editatzeko aukera gehiago egongo dira, baina luzapenean bertan modu sinple batean bada ere, aldaketa txikiak egiteko aukera izatea lagungarri izan daiteke.
- Erabiltzaileek erregistratzeko eta kontuan sartzeko aukera izateko. Kontuan sartutako erabiltzaileek funtzionalitate gehigarriak izango dituzte, eta ondorioz kontuak sortzeko eta horietara sartzeko oinarritzko sistema bat garatzea beharrezkoa da.
- Kontuan sartutako erabiltzaileek datu base orokor batean ebaluazio txostenak igo eta jaisteko aukerak ematea, txostenen domeinuaren araberrako bertsio kontrol sinple bat eskainiz. Funtzionalitate honi esker, erabiltzaileek beraien artean egindako lana partekatzeke eta berrerabiltzeko aukera izango dute, besteak beste.
- Frontend zatitari dagokion atala React framework-aren bitartez berriro egitea. Aurreko urtean JavaScript, HTML eta CSS erabiltzen ziren, baina gaur egun normalean framework-ak erabiltzen dira, dagoeneko sor daitezkeen behar eta arazo ezberdinentzako soluzioak emateko baliabideak eskaintzen dituztenak.
- React Node.js ingurunekoa dela kontuan izanda, ingurune bereko tresnak erabiliz zerbitzaria ere aldatzea. Tresna guztiak ingurune berekoak izanik, kasu honetan node.js, teknologia berean oinarrituko dira sistemako atal ezberdinen arteko komunikazioa erraztuz. Gainera, instalazio kontuutarako ere lagungarria izan daiteke.
- Aurreko justifikazio berarekin scraping egiteko Puppeteer tresna erabiliko da.
- Datu basearen aldetik konplexutasunik behar ez dugunez, Node.js-ko SQLite3 erabiltzearekin nahikoa izango da. Hasiera batean pare bat taula izatea espero dugu eta horretarako datu-baseak fitxategi lokal batean gordetzeko aukera ematen duen SQLite bezalako oinarritzko datu base kudeaketa sistema bat erabiltzea aproposa da.
- Luzapenak kalitate gehigarriko elementuak izatea, adibidez, konfigurazio orri baten bitartez erabiltzaileak luzapena pertsonalizatzeko aukera sinpleak eskainiz.

Bukatzeko, antzeko tresnei buruz egindako azterketan oinarrituz interesgarriak izan daitezkeen hainbat ezaugarri ikusi ditugunez, alderdi horretatik tresnak honako baldintzak bete beharko dituela erabaki dugu:

- Webgune bateko orrialde bakarria beharrean, hainbat orrialde aldi berean aztertzekeo gai izatea.
- Ebaluatzaile automatikoen artean, webgunez aparte liburutegiak ere inplementatzea, suposatzen duten azkartasun eta mantenu erraza dela eta.
- Ebaluaketa txostenen egitura Mauve++ tresnan ikusitako JSON-LD formatuaren bitartez ahalik eta gehien estandarizatzea.
- Ebaluaketa automatikoak egitean, 6 ebaluatzaile ezberdin erabiltzeko aukera izatea, 3 webgune eta beste 3 liburutegi. Aukeratu ditugun webgune motako ebaluatzaileak:
  - AChecker: agian zaharkitu xamarra geratzen ari da baina aurreko urtean erabiltzen zenez Earler-en ere mantenduko dugu. Scraping egiteko erabilitako tresna aldatzen badugu ere, aurreko urtean egindakoa moldatzea zerotik hasita baina errezagoa izan beharko luke.
  - AccessMonitor: Eguneratutako tresna da, nahiko azkarra, eta kasu honetan ere aurreko urteko AC-Check tresnan erabili zen. Beraz, AChecker aukeratu izanaren arrazoi antzekoengatik mantentzea erabaki dugu.
  - Mauve++: Ebaluaketak azkar eta WCAG 2.1 estandarraren gainean egiten ditu, eta scraping bidez beharrezko datuak eskuratzeko egitura erraza du. Eskuratu beharreko datu guztiak "Live preview" izeneko atalean zerrendatzen ditu, aurkitutako arazoen kode zatietarako erreferentziekin batera. Gainera, gure txostenen formatua zehazten dugunean, posible da esportatzeko eskaintzen dituen JSON-LD txostenak behar ditugun datu guztiak barne izatea, eta beraz scraping prozesua fitxategi hori jaitsi eta datuak bertatik eskuratzeko oinarritzea.

Aukeraturako luzapen motako irisgarritasun ebaluatzaileak:

- Pa11y: Hainbat Pa11y motako tresna daude baina gure kasuan oinarritzeko liburutegia erabiliko dugu. Beste liburutegi batzuekin konparatuz, azpitik Puppeteer erabiltzen duelako aukeratu dugu.
- Lighthouse: Google Chrome arakatzailan bertan integratuta dagoenez, interesgarria iruditu zaigu dagokion liburutegi bertsioa erabiltzea, lortutako emaitzak arakatzailan inplementatutakoarekin konparatuz ondo inplementatu dugun ikusteko. Gainera, Chrome arakatzailaren irekitako instantzia bat behar duenez, eta Puppeteer hasieratzean Chrome arakatzailako instantzia bat sortzen duenez, instantzia bera berrerrabil dezakegu.
- A11y: Kasu honetan AInspector luzapenak azpitik erabiltzen duen liburutegia duenez, A11y inplementatzea eta AInspector tresnaren emaitzekin alderatuz genezakeela iruditu zaigu.

### 3.1.3 Baztertutakoaren deskribapena

Alde batetik, erabiltzaileen interfazeak diseinatzeko garaian, prototipoak egiteaz aparte bezero edo azken erabiltzaileak izango direnek proba ditzaten egiten da, horiek eskaintzen duten feedbacka jasoz eta interfazeetan egokitzapenak eginez. Kasu honetan, diseinuan prototipo bat egingo dugu, baina proiektua aurrera doala, egokitzapen guztiak tutorea eta

### 3. PLANGINTZA

---

bion arteko irizpideak kontuan izanik egingo ditugu, ez dugu beste pertsonarik kontuan izango.

Bestetik, diseinu kontuetan hainbesteko denbora ez pasatzeko, erabilpen kasuak eta sekuentzia diagramak egiterakoan luzapenaren oinarriko funtzionalitate garrantzitsuenak bakarrik izango ditugu kontuan, hau da, aipatutako kalitate gehigarriko funtzionalitateak ez ditugu aurretik diseinatuko.

Gainera, badakigu erabiltzaileen datuak eskuartean izatean, horiek zifratuz eta teknika ezberdinak erabiliz babestu behar direla, baina gure kasuan garatuko dugun produktua ez denez bezero batentzako edo salmentan jartzeko izango, horiek alde batera utziko ditugu. Behar bada, hurrengo lan baterako aipatutakoak inplementatzea ondo egongo litzateke.

#### 3.1.4 Emangarriak

Alde batetik, EHUri eta proiektuko zuzendariari dagozkien emangarriak:

- **Memoria:** Honako proiektuaren memoria dokumentua.
- **Aurkezpena:** Proiektuaren defentsarako aurkezpena.

Bestalde, sortutako produktuaren erabiltzaile izango denarentzako:

- **Luzapena:** Earler Google Chromerako luzapena.
- **Zerbitzaria:** Luzapenaren funtzionamendurako zerbitzaria.
- **Gida:** Garatutakoa instalatzeko eta martxan jartzeko gida.

Gainera, beste garatzaile edo ikasle batek egindako tresnaren kodea aztertu nahiko balu:


- **Kodearen dokumentazioa:** Garatutako tresnaren kodearen automatikoki sortutako dokumentazioa.

#### 3.1.5 Lan paketeak

Lan-paketeen helburua, proiektuan zehar egin beharreko lanak multzo txikiago eta maneia-garrietan banatzea da. LDE diagraman kolore berdez ikus daitekeen bezala, ikus [3.1](#) irudia, proiektu hau 9 lan-paketeetan banandu dugu, horietatik 4 binakako adarretan multzokatuak. Hona hemen, lan-pakete horien azalpenak:

1. **A - Aurrekariak:** Proiektuarekin hasi aurretik testuinguruan kokatu ahal izateko egin beharreko ikerketa eta proba lanak.
2. **PL - Plangintza:** Proiektuaren garapen egokirako hasieran ondo zehaztu beharreko plangintzaren garapena.
3. **JK - Jarraipen eta kontrola:** Lan-pakete honetan, proiektua ibilbide egokian doala ziurtatzeko lanarekin zerikusia duten atazak biltzen dira, hau da, batez ere garapena plangintzarekin bat etortzen ari den ikusteko balioko du.

### 3.2. Atazak egingo diren denboraldiak eta emangarriak bukatzeko datak



3.1 Irudia: Proiektuaren WBS/LDE diagrama

4. **T - Trebakuntza:** Proiektua garatu ahal izateko eskakizunetan aipatutako tresnen ikasketa, eta arazoaren soluzio posibleen bilaketa.
5. **D - Diseinua:** Pakete honetan, tresnaren egitura orokorra, egitura horretako elementuen arteko komunikazioa, luzapenaren diseinu grafiko, etab. nolakoak diren diseinatu eta zehaztuko dira.
6. **Z - Zerbitzaria:** Zerbitzariak luzapenaren baliabide guztiak bermatu ahal izateko eskaini beharreko funtzionalitateak garatzeko atazak izango ditu barne.
7. **L - Luzapena:** Erabilpen kasu guztiak kontuan dituen luzapenaren inplementazioa egin ahal izateko gauzatuko diren atazak biltzen ditu.
8. **PR - Probak:** Funtzionalitate konplexueneren funtzionamendu egokia eta ahalik eta egonkorrena bermatzeko zereginarekin zerikusia duten atazak.
9. **I - Itxiera:** Proiektua amaitzean dagoenean garatutako tresnaren erabilera modu egokian dokumentatzeko atazak biltzen ditu.

## 3.2 Atazak egingo diren denboraldiak eta emangarriak bukatzeko datak

### 3.2.1 Egin beharreko atazen deskribapena

LDE diagraman kolore urdinez ikus daitezkeen bezala, ikus 3.1 irudia, honakoak dira aurretik definitutako lan pakete bakoitzeko ataza guztiak eta dagozkien deskribapen laburrak:

#### 1. A - Aurrekariak

### 3. PLANGINTZA

---

- **A.ACW - AC-Check eta WCAG aztertu:** Aurreko urteko AC-Check tresna instalatzea, probatzea, kodearen nondik norakoak aztertzea, eta erabiltzen duen WCAG terminologia ulertzea.
- **A.EL - Erlazionatutako lanen azterketa:** Dagoeneko 2. kapituluan azaldutako erlazionatutako lanen azterketa egitea eta idaztea.

#### 2. PL - Plangintza

- **PL.PD - Proiektuaren definizioa:** Proiektuaren testuingurua, helburuak eta eskakizunak definitzea.
- **PL.HP - Hasierako plangintza:** Emangarriak, lan-paketeak, atazak, dedikazioak, mugarriak, diagramak, etab. definitzea.

#### 3. JK - Jarraipen eta kontrola

- **JK.B - Bilerak:** Proiektuaren bizi-zikloan zehar, tutorearekin 2 asteko tartetan bilerak egingo dira, besteak beste, ataza bakoitzerako definitutako denborak eta helburuak jarraitzen ari diren ikusteko, eta horren arabera erabakiak hartzeko.
- **JK.JK - Informazioa jaso eta plangintzarekin konparatu:** Proiektuaren garapenari buruzko informazioa jasotzea eta plangintzarekin alderatzea desbiderapenak dauden ikusteko, eta definitutako atazak betetzen ari direla ziurtatzeko.

#### 4. T - Trebakuntza

- **T.SB - Zerbitzari arazoaren soluzioaren bilaketa:** Zerbitzari berria izateak sortuko dituen arazoak nola konpondu bilatzea.
- **T.R - React ikasketa:** React framework-aren erabileraren ikasketa.
- **T.P - Puppeteer ikasketa:** Webgune motako ebaluatzaileen emaitzak jasotzeko Puppeteer scraper tresnaren erabileraren ikasketa.
- **T.LD - JSON-LD ikasketa:** Lortutako ebaluaketa emaitzak jasotzeko erabiliko den JSON-LD formatuaren berezitasunen ikasketa.

#### 5. D - Diseinua

- **D.EK - Erabilpen kasuak:** Erabiltzaileak eskuragarri izango dituen oinarritzko funtzionalitate guztiak adierazteko erabilpen kasuen diagrama egitea.
- **D.DG - Luzapenaren diseinu grafikoa:** Luzapenak grafikoki izango duen itxura zehaztea.
- **D.SD - Sekuentzia diagramak:** Erabiltzaile bakoitzak oinarritzko funtzionalitate bat erabiltzean, tresnak azpitik kodean egingo duen ibilbidea adierazteko sekuentzia diagramak diseinatzea.
- **D.TF - Irisgarritasun txostenen formatua:** Adierazitako eskakizunak betetzeko eta luzapenaren funtzionalitateak eskaini ahal izateko, irisgarritasun emaitzen txostenek izango duten egitura espezifiko zehaztea.
- **D.DB - Zerbitzariko datu-basea:** Erabiltzaile erregistratuen datuak eta horiek gordetzen dituzten txostenen bertsio kontrola egin ahal izateko sqlite3 datu baseko taulak nolakoak izango diren definitzea.

## 6. Z - Zerbitzaria

- **Z.JB - Eskaerak jaso eta bideratzeko sistema:** Zerbitzariak, eskaerak jaso, horiek kudeatu, eta emaitzak itzultzeko sistema garatzea.
- **Z.EA - Ebaluaketa automatikoa egiteko sistema:** Zerbitzariak aurretik aipatutako ebaluatzaileen ebaluaketak egin eta emaitzak jasotzeko inplementazioa.
- **Z.EK - Erabiltzaileen kudeaketa sistema:** Erabiltzaileen erregistratzeko eta kontuan sartzeko eskaerak jasotzean, dagokion datu baseko taulan kudeaketak egiteko sistema sortzea.
- **Z.TK - Ebaluaketa txostenen kudeaketa sistema:** Erabiltzaileek pasatako txostenak edota eskatutakoak berreskuratzeko eskaerak kudeatzeko sistema garatzea.

## 7. L - Luzapena

- **L.OF - Erabiltzaile guztienezako oinarrizko funtzionalitateak:** Ataza honen, ebaluaketa automatikoa egiteko, definitutako 6 ebaluatzailearen artean aukeratzeko, webguneko zein orrialde ebaluatu adierazteko, emaitzak taulan zerrendatu eta klikatuz orrialdean ikusteko, txostenak deskargatzeko, eta txostenak fitxategi baten bidez igotzeko aukerak biltzen ditu.
- **L.EI - Erabiltzaileen erregistroa eta identifikazioa:** Erabiltzaileek beraien datuak emanda erregistratzeko eta dagozkien kontuetan sartzeko aukera izateko sistema garatzea.
- **L.IF - Erabiltzaile identifikatuentzako funtzionalitate gehigarriak:** Kontuan sartutako erabiltzaileek funtzionalitate gehigarriak izango dituzte. Txostena zerbitzariko datu base zentralizatu batean gorde ahal izango dute, datu-basean gordetako txosten guztiak ikusteko eta bat aukeratuz luzapenean kargatu ahal izango dute, eta txostenak beraien izenean editatu ahal izango dituzte.
- **L.KG - Konfigurazio orria eta funtzionalitate gehigarriak:** Aipatu bezala, luzapenak konfigurazio orri bat izango du, eta bertan garapenean zehar interesgarriak eta gehiegizko konplexutasuna ez duten funtzionalitate gehigarriak eskainiko ditu. Horretaz aparte baliteke luzapenerako interesgarriak diren funtzionalitate gehigarriak ere garatzea.

## 8. PR - Probak

- **PR.EA - Ebaluaketa automatikoen egonkortasuna:** Ebaluaketa automatikoen emaitzak egonkorak diren eta ebaluaketa prozesuan erroreak gertatzen diren egiaztatzea.
- **PR.AE - Emaitzen aldaketak:** Emaitzen aldaketak egitean, txostenen ondo gordetzen direla, eta aldatutako emaitzak ebaluaketa berriak egin edo txosten berriak kargatzean berridazten ez direla egiaztatzea.
- **PR.BK - Txostenen bertsio kontrola eta kudeaketa:** Txostenak ondo gorde eta kargatzen direla egiaztatzea.
- **PR.TK - Ebaluaketa automatikoekin lortutako emaitzen test kasuak:** Ebaluatzaile automatikoek W3C-ren ACT test kasuak zein neurritan betetzen dituzten egiaztatu eta ondorioak ateratzea.


9. I - Itxiera

- **I.KD - Kodearen dokumentazioa:** Garatutako kodea ChatGPT bidez dokumentatzea eta bukaeran dokumentazio guztia biltzen duen HTML orrialde bat automatikoki sortzea.
- **I.G - Instalazio eta martxan jartzeko gida:** Tresna edonork erabili ahal izateko gida labur bat idaztea.
- **I.M - Memoria:** Honako dokumentu hau bukatzea.
- **I.A - Aurkezpena:** Proiektuaren defentsa egiteko aurkezpena.

3.2.2 Atazen garapen denboraldiak

Atazak garatzeko esleitu diren denboraldiak ondorengo 3.2 irudiko Gantt diagraman ikus daitezke. Honakoak dira diagrama egiterakoan kontuan izandako puntu nagusiak:

- Erabiltzaileen erregistroa eta dagozkien funtzionalitateak beranduago egin behar izango direla suposatzen denez, dagozkien atazak, datu-basearen diseinua barne, proiektuaren bukaeratik hurbil kokatu dira.
- Diseinurik edo tresna berezirik behar ez denez liburutegi motako ebaluatzaileen lehen emaitzak lortzen hasi ahal izateko, ebaluatzaile automatikoak proiektuaren hasieratik implementatzen hastea erabaki dugu, pixkanaka egiten joateko eta proiektuaren garapenean aukera gehiago izateko.
- Ekaina aldera lanean hastea pentsatzen dudanez, ordurako implementazioa bukatuta izateko moduan egituratu ditut atazak. Modu horretara, desbiderapen garrantzitsurik gertatzen ez bada, memoria idaztea eta probak egitea besterik ez zaizkit geratuko.
- Garrantzitsua da egindako lana ekainak 25 egunerako ADDI plataformara igota egon beharko duela kontuan izatea. Beraz, proiektuak ordurako bukatuta egon beharko duela kontuan izan dut.



3.2 Irudia: Hasierako Gantt diagrama



### 3.3 Ataza bakoitzari emango zaion denboraren estimazioak

Ataza bakoitzari dedikatuko zaion orduen estimazioa ondorengo 3.1 irudiko taulan ikus daiteke. Kontuan izandako gauza nagusiak:

- Zerbitzariko ebaluatzaile automatikoen inplementazioari dagokionez, seguruenik webgune motakoek liburutegiek baina dedikazio gehiago dute. Scraping egiteak arazo asko eman ditzake, eta A11y liburutegiaren kasuan ere, barrutik nola inplementatuta dagoen ere ikusi beharko dut.

Gainera, AccessMonitor eta AChecker tresnen scraper programa eginak daude baina segur aski horretarako tresna berri bat erabiltzen ari naizenez, aldaketa asko egin beharko ditut. Beraz, nahiz eta liburutegien kasuan seguruenik denbora askoz gutxiago beharko dudana, batz bestea ebaluatzaile bakoitzeko 10 ordu inguru estimatzea pentsatu dut.

Diseinatutako JSON-LD txostenak sortzeko programa egiteak, eta ebaluatzaile ezberdinak eta aukeratutako webguneko orrialdeak paraleloan ebaluatu daitezten egiteak seguruenik kopuru nabarmena beharko du. Beraz, nahiz eta seguruenik desbiderape-nak egongo diren, dena 75 orduko estimazioa esleitu diot atazari.

- Luzapeneko oinarrizko funtzionalitateei dagokionez, txostenetako datuak taulan ikusi ahal izateko mapaketa egitea, zerrendako elementuetan klikatzean web orrialdean nabarmentzea, kokatutako orrialdearen arabera emaitzak erakustea, etab. denbora nahiko handia behar izatea espero dudanez, 45 orduko dedikazioa ezarri diot atazari. Egia esan ez dakit oso egokia den, ez dakidalako zein puntutaraino gai izango naizen aurreko urteko kodea React bidez berreraabiltzeko.
- Identifikatutako erabiltzaileentzako funtzionalitateak inplementatzeak kostu nahiko handia izatea ere espero dut, batez ere datuak taulatik eraldatzeko egituraketa egoki bat eta datu horiek maneiatzeak konplexutasun handia izango duelako.

Orokorrean ez nago guztiz ziur inplementazioan beharko dudana dedikazioaz, batez ere erabili ez ditudan hainbat tresna erabili beharko ditudalako. Beraz, seguruenik desbidera-pen garrantzitsuak egongo dira inplementazioari dagokion dedikazioaren estimazioan eta errealitatean egingo denaren artean.

### 3. PLANGINTZA

---

ATAZA	ESTIMATUTAKO ORDUAK
A - Aurrekariak	13
ACW	7
EL	6
PL - Plangintza	15
PD	3
HP	12
JK - Jarraipen eta kontrola	10
B	8
JK	2
T - Trebakuntza	16
SB	8
R	4
P	2
LD	2
D - Diseinua	20
EK	2
DG	2
SD	10
TF	4
DB	2
Z - Zerbitzaria	80
JB	2
EA	75
EK	1
TK	2
L - Luzapena	75
OF	45
EI	2
IF	20
KG	8
PR - Probak	28
EA	4
AE	4
BK	4
TK	16
I - Itxiera	34
KD	6
G	3
M	20
A	5
<b>Denera:</b>	<b>291</b>

**3.1 Taula:** Estimaturako ataza bakoitzeko dedikazioa

## 3.4 Proiektuko informazio eta komunikazio sistemak

### 3.4.1 Informazio sistema

Alde batetik, proiektuan zehar sortutako kodea eta egindako aldaketa guztiak GitHub plataformara igo eta bertan kudeatuko dira.

Bestetik, Google Drive zerbitzuko karpeta bat izango dut, bileren datak eta iraupenak apuntatzeko, atazei dedikatutako denborak ezartzeko, memoriaren idazketa aurreratzen joateko dokumentuak idazteko, bileretan aipatutako estekak eta erreferentziak gordetzeko, etab.

Bukatzeko, memoriaren idazketa Overleaf tresnaren bidez egingo dut, egindako lana periodikoki jaitsiz backup moduan izateko.

### 3.4.2 Komunikazio sistema

Tutorearekin bilera periodikoak gauzatuko dira 2 astez behin ostegun goizetako 11:30tan. Edozer gauza dela eta bilera horietako bat gauzatzeko aukerarik egongo ez balitz, posta elektronikoko bitartez beste egun eta ordu bat finkatuko litzateke. Besterik ez bada adierazten, bilerak Webex bidez egingo dira, egindakoa ordenagailuko pantaila partekatuz erakutsiz. Edozein zalantza argitzeko bilera horiek erabiliko dira, eta nahikoa ez balitz posta elektronikoz idazteko aukera ere egongo litzateke.

## 3.5 Arriskuak

- **A1:** Arrisku garrantzitsu bat, lanerako erabiltzen den gailua matxuratu edo galtzea-gatik, garatutako kodea, jasotako informazioa edo memoria bera galtzeko arriskua izango litzateke. Arrisku honen eragina oso handia izan daiteke, baina aldi berean saihesteko oso erraza da. Nire kasuan, kode guztia GitHub plataforman dagoenez, arriskua gertatuko balitz, plataformara igotako azkenengo bertsiotik aurrera egindako aldaketak galduko lirateke bakarrik, eta beraz aldaketak denbora tarte txikietan eginez galdutako aurrerapenak ez lirateke handiak izango. Gainera, memoria eta gainontzeko informazioak online plataformetan ditudanez, ez dute erabiltzen dudan gailuaren menpekotasunik eta beraz ez daude arrisku honen menpean.
- **A2:** Scraping egiteak arrisku handi bat suposatzen du, datuak lortzeko erabiltzen den orrialdean aldaketak eginez gero, hau da, HTML orriaren egitura edo elementuen class eta id atributuak aldatzen badira, scraping egiteko egindako programak funtzionatzen uzteko probabilitatea handia dago. Arrisku hau ekiditeko ezin daiteke ezer asko egin, datuak eskuratzeko erabiltzen den moduaren arabera egonkortasun gehiago lor daiteke, baina ezin daiteke inolako bermerik izan. Agian, scraping egiteko kodea txukun eta ondo dokumentatua izateak lagun dezake arriskua gertatzen denean ahalik eta azkarren konpontzeko gai izateko.
- **A3:** Beste arrisku bat gainontzeko irakasgaiekin suposatu baina denbora gehiago behar izatea da. Hau da, proiektuarekin batera irakasgai gehiago ere kurtsatzen ari nahiz eta horiek aurrera eramateko pentsatu baina denbora gehiago beharko banu, proiektuari dedikatzeke izango nukeen denbora murriztuko litzateke. Dena dela, nire kasuan 2 irakasgai bakarrik dira, eta zailtasun aldetik errazak kontsidera daitezke,

### 3. PLANGINTZA

---

hori dela eta, arrisku hau gertatzeko aukerak txikiak dira, eta gertatzera joango balitz ere, kurtsuan zehar irakasgaietan dudan errendimendua ikustea edukiko nuke horren arabera proiektuaren plangintza aldatu eta egoerara egokitu.

- **A4:** Gainera, beste arrisku bat teknologia ezberdin asko eta niretzako berriak direnak erabili beharko ditudala izan daiteke. Arrisku horrek bi alderdi ditu: Alde batetik, niretzako tresna berriak izateak, estimatutako dedikazio denborak ondo finkatzea zaila egiten du, eta ondorioz desbiderapen garrantzitsuak egon daitezke. Bestetik, hainbat teknologia direnez beraien artean gatazkak sortzea, edota zuzenean baten batek erroreak sortzea gerta daiteke.

Prebentzio moduan, proiektuarekin hasi aurretik trebakuntza atalean erabiliko ditudan tresnak nola erabiltzen diren ikasiz, egindako denbora estimazioak neurri batean zuzentzeko aukera izango dut. Horretaz aparte, erabiliko ditudan tresnak ingurune berekoak izango direnez eta dokumentazio aldetik orokorrean aberatsak direnez, ez dut uste beraien arteko gatazkak egongo direnik, eta erroreak sortzen direnean ez litzateke dokumentazioaren bitartez arazoak konpontzeko zailtasun handiegirik egon beharrik.

# Trebakuntza

Kapitulu honetan, formakuntza lan-paketeko atazen gauzatzeari buruz hitz egingo da, batez ere, zerbitzari arazoaren soluzioen bilaketan sakonduz.

## 4.1 Zerbitzari berria

Luzapenaren funtzionalitateak eskaini ahal izateko derrigorrezkoa da zerbitzari bat izatea. Horretarako, aurreko urtean Flask [17] frameworka erabili zen, baina aurtengoan, React-ek Node.js [18] erabiltzen duela aprobetxatuz, zerbitzariak ingurune horretako tresnak erabiliz lan egin beharko du. Ondorengo azpiataletan zerbitzaria nola antolatuko den eta zein tresna erabiliko dituen jakiteko egindako azterketa azalduko da.

### 4.1.1 Luzapenerako argazkiak

Zerbitzariaren funtzionalitate bat luzapenarentzako argazkiak lortzea zen. Arazo horri soluzio emateko, Google Chrome arakatzailleak eskaintzen duen `web_accessible_resources` [19] aukera aurkitu dut. Tresna hori luzapenek erabiltzeko pentsatuta dago, eta ondorioz inplementatzea nahiko erraza da.

Egin behar den bakarra, luzapeneko `manifest.json` konfigurazio fitxategian **`web_accessible_resources`** aukera txertatzea, eta barnean erabili beharreko argazkiak edota fitxategiak adieraztea da, ikus 4.1 irudia. Horri esker, irudien path edo helbideak lortu ahal izateko, `chrome.runtime.getURL("irudia");` funtzioa erabiltzearekin nahikoa da.

```
"web_accessible_resources": [
  {
    "resources": ["/images/icon128.png", "/images/contractedArrow.png", "/images/contractedArrow.png"],
    "matches": ["<all_urls>"]
  }
]
```

4.1 Irudia: `manifest.json` konfigurazio fitxategian luzapeneko argazkiak adierazteko

### 4.1.2 CORS arazoak

AC-Checken zerbitzarian Flask-CORS [20] bitartez CORS [21] arazoak ekiditen ziren, eta aurtan hasiera batean soluzio azkar moduan proxy bat erabiltzea pentsatu dugu. CORS bitartez, zerbitzarira egindako eskaeren jatorrizko IP eta burukoaren arabera, eskaera horiek blokeatu edo ez erabakitzen da. Proxy bat erabiliz IP-ak pertsona errealean simulatzea lor genezake, baina oraindik buruko egokiak jartzeak arazoak ekar ditzake.

Gainera, gida pare bat gainetik begiratu ondoren [22, 23], HTTPS protokolorako proxy zerbitzaria egitea konplexua izan daitekeela ikusi dut. Hori dela eta, dagoeneko sortutako liburutegi bat bilatzeko prozesuan, gure beharretara egokitzen den Node.js-ko cors-anywhere [24] liburutegiaren aipamena [25] aurkitu dut.

Tresna hori, Node.js bidez exekuta daiteke, defektuz localhost:8080 helbidetik pasatzen diren eskaera guztien tartekari edo proxy zerbitzari baten funtzioa eginez. Gainera, eskaeren burukoak aldatzen ditu CORS sistemak blokeatu ez ditzan, eta erabiltzeko egin beharreko gauza bakarra, eskaera jasoko duen helbidea `http://localhost:8080/` ondoren jartzea da. Adibidez: `http://localhost:8080/https://mauve.isti.cnr.it/singleValidation.jsp`.

### 4.1.3 Zerbitzariko eskaerak nola jaso eta kudeatu aurkitu

Aurrekoaz aparte, zerbitzarira eskaerak nola egin, eta zerbitzariak eskaera horiek nola jaso eta kudeatu ditzan ere jakitea beharrezkoa da. Eskaerak jaso eta kudeatzeko, Node.js-ko http liburutegiaren gida bat [26] aurkitu dut, eta JavaScript bidez zerbitzarira eskaerak egiteko, tutoreak esan bezala, fetch tresna erabil dezakedala ikusi dut. Fetch erabiltzen ikasteko gida honetaz baliatu naiz: [27].

## 4.2 React, JSON-LD eta Puppeteer ikasten

Hasteko, aurreko urtean erabiltzailearen interfaze grafikoaren zati guztia JavaScript, HTML eta CSS erabiliz egin zen, baina gaur egun normalean tresna ahaltuagoak erabiltzen dira. Hori dela eta, JavaScripten oinarritutako React framework-a [28] erabiltzea erabaki dugu. React ikasteko, dagokion dokumentazioa begiratzeaz aparte, bi gida jarraitu ditut: lehena erabilera orokorra ikasteko [29], eta bigarren React bidez luzapena nola egin ikasteko [30].

Bestalde, JSON formatua aurretik ezaguna eta erabilia nuen, baina JSON-LD buruz ez nekien ezer. Hori dela eta, formatuari buruzko ideia orokor bat egiteko, dagokien webguneko dokumentazio atalera jo dut [31], eta "Introductory Material" atalean, dagozkion nondik norakoak azaltzen dituzten hainbat bideo topatu eta ikusi ditut.

Bukatzeko, ez da nahikoa web ebaluatzaileen HTML kodea zuzenean fetch bidez atzitzea, webgune motako ebaluatzaile guztiek URL bat idaztea, botoi bat klikatzea, datuak kargatu bitartean itxarotea, etab. behar dutelako. Hori dela eta, scraping teknikaz baliatzea beharrezkoa da eta aurreko urtean, Flask zerbitzaritik scraping egiteko Selenium [32] eta BeautifulSoup Soup [33] tresnak erabili ziren.

Aurtan, Node.js ingurunea aprobeztatuz, Node.js-ko Puppeteer [34] scraperra erabiltzea erabaki dugu, eta ondorioz tresna berriarekin scraping nola egiten den ikasten hasteko, dokumentazioari begirada bat eman eta tutorial bat segi dut [35].

## Diseinua


Software produktu edo tresna bat garatzerako garaian, kodea idazten hasi aurretik hainbat gauza diseinatu behar dira: produktuak eskaini beharreko funtzionalitateak, izango duen interfaze grafikoa, datu-basearen egitura, etab. Hori dela eta, kapitulu honetan ondorengo 4 atalak izango ditugu:

- **Erabilpen kasuen diagrama 5.1:** Earler tresnak izango dituen oinarrizko erabilpen kasuak eta horiek erabiliko dituzten aktore ezberdinak biltzen dituen erabilpen kasuen diagramaren definizioa eta azalpenak izango ditu.
- **Datu-basearen diseinua 5.2:** Funtzionalitate batzuetarako sqlite3-ko datu-base bat beharko dugu, eta atal honen bitartez datu-base horretako taulek izango duten egitura zehaztuko dugu.
- **Erabilpen kasuen sekuentzia diagramak 5.3:** Aipatutako erabilpen kasuak nola inplementatuko diren eta kodeko zati ezberdinen artean egongo diren elkarrekintzak adierazteko sekuentzia diagramen diseinuak erakutsi eta azalduko ditugu.
- **Luzapenaren diseinu grafikoa 5.4:** Atal honetan erabiltzaileak interfazea nola ikusiko duen zehaztuko dugu, hau da, luzapenak grafikoki izango duen egitura, funtzionalitate mota ezberdinak nola erakutsiko diren, osagai ezberdinek izango dituzten koloreak, tamainak, etab.
- **Irisgarritasun txostenen formatua 5.5:** Irisgarritasun azterketekin sortutako datuak guri interesatzen zaigun moduan gorde behar direnez, atal honetan horretarako sortuko ditugun txostenak nolako egitura izango duten definituko dugu.

Kontuan izan erabilpen kasuen aldetik, oinarrizko funtzionalitateak bakarrik izan ditugula kontuan, bestela garatzea pentsatzen ditugun kasu guztientzako sekuentzia diagramak egin beharko bagenitu denbora gehiegi behar izango genuke.

## 5.1 Erabilpen kasuen diagrama

Erabilpen kasuen diagramaren bitartez, software produktu batek dituen erabiltzaile mota ezberdinak (aktoreak) eta horiek erabili ditzaketen funtzionalitateak (erabilpen kasuak) grafikoki modu errazean adierazten dira. Honakoa da Earler proiektuko erabilpen kasuen diagrama:



5.1 Irudia: Erabilpen kasuen diagrama

### 5.1.1 Aktoreak

- **User** izeneko aktoreak erabiltzaile guztiak erabili ahal izango dituzten erabilpen kasuak izango ditu, eta **NotAuthenticated** eta **Authenticated** aktoreek **User**-en erabilpen kasuak heredatuko dituzte.
- **NotAuthenticated** aktoreak kontuan sartu gabeko edozein erabiltzaile errepresentatzen du, hau da, ez du zertan datu basean erregistratuta egon beharrik.
- **Authenticated** aktoreak kontuan sartutako erabiltzaileak errepresentatzen ditu, hau da, datu basean erregistratuta egonik dagozkien kontuetan sartuta dauden erabiltzaileak.

### 5.1.2 Erabilpen kasuak

- **Login:** Dagoeneko erregistratuta dagoen erabiltzailea kontuan sartzeko.
- **Register:** Erabiltzaile berri bat erregistratzeko.
- **Logout:** Erabiltzailea kontutik ateratzeko.
- **Evaluate scope:** Erabiltzaileak hautatutako ebaluatzaile automatikoekin eta adierazitako orrialdeak kontuan izanik, ebaluaketa automatikoa egin, emaitzak lortu eta gordetzeko prozesua.
- **Remove current report:** Unean luzapenean kargatuta dagoen txostena ezabatzeko aukera.
- **Download current report:** Unean kargatuta dagoen txostena deskargatzeko aukera.



- **Upload report file:** Fitxategi bateko ebaluaketa txostena kargatzeko aukera.
- **Store current report:** Unean kargatuta dagoen ebaluaketa txostena zerbitzariko datu basean gordetzeko aukera.
- **Load stored report:** Zerbitzarian unean kokatutako gunea ebaluatzen duten txostenak ikusi eta aukeratutako kargatu ahal izateko funtzionalitatea.
- **Edit found cases:** Emaitzen taulako irisgarritasun irizpide zehatz bateko aurkitutako emaitzak aldatzeko funtzionalitatea.

## 5.2 Datu-basearen diseinua

Normalean datu-base bat diseinatzeko garaian, grafiko mota ezberdinak egiten dira taulak izango dituzten datuak eta gainontzeko taulekiko erlazioak ondo zehazteko, optimizazioa egiteko, etab. Gure kasuan, sortuko dugun datu-basea oso txikia eta konplexutasun gutxikoa denez, ez dugu horrelakorik egingo.

Bi taula besterik ez ditugu izango, bata erabiltzaileak eta bestea ebaluaketa txostenak gordetzeko.

Erabiltzaileen aldetik ez dut ezer berezirik behar izango, beraz, 5.2 irudian ikus daitekeen bezala sortuko dut, email atributuaren balioen arabera erabiltzaileak identifikatuz.

```
CREATE TABLE IF NOT EXISTS users (  
  email TEXT PRIMARY KEY,  
  username TEXT NOT NULL,  
  password TEXT NOT NULL  
)
```

5.2 Irudia: Erabiltzaileak gordetzeko taula

Txostenak gorde eta kudeatzeko, 5.3 irudiko reports izeneko taula sortu dut. Kasu honetan erabiltzaileen taularekin baina azalpen gutxi batzuk gehiago eman beharko ditut:

Alde batetik, txosten bakoitzari identifikatzaile bat automatikoki esleituko zaio oinarriko gako moduan, ondoren parentId gako arrotzarekin erreferentzia egiteko. Erreferentzia horrek, txosten hori sortzeko zein txostenetatik abiatu den adierazten du. Ez badu inongo gurasorik parentId NULL izango da. Gurasorik izan badu, txosten berriaren bertsioa gurasoarena + 1 izatea da ideia.

Bestalde, domain atributuak txostenak zein domeinuko orrialdeak ebaluatu dituen gordeko du, modu horretara, luzapena kokatutako domeinua ebaluatu duten txostenak modu errazean lortuko ditut.

Azkenik, uploadedBy atributuaren balioak txostena igo duen erabiltzailearen username balioa adieraziko du.

```
CREATE TABLE IF NOT EXISTS reports (  
  id INTEGER PRIMARY KEY AUTOINCREMENT,  
  domain TEXT NOT NULL,  
  version INTEGER NOT NULL,  
  uploadedBy TEXT NOT NULL,  
  report TEXT NOT NULL,  
  parentId INTEGER,  
  FOREIGN KEY (parentId) REFERENCES reports(id)  
);
```

5.3 Irudia: Txostenak gordetzeko taula

## 5.3 Erabilpen kasuen sekuentzia diagramak


Atal honetan aurretik aipatutako erabilpen kasuen sekuentzia diagramak erakutsi eta gainetik azalduko ditut, aktoreek, luzapenak eta zerbitzariak erabilpen kasu bakoitzean egiten duten elkarrekintzaren ideia orokor bat egin ahal izateko. Kontuan izan error jartzen dudanean errealitatean window.alert bidez erabiltzaileari feedback-a ematea adierazten dudala.

### 5.3.1 Login

Hasieran, erabiltzailea kontura sartzeko login formulariora joaten da eta datuak sartu ondoren kontura sartzeko botoiari ematen dio. Luzapenak login motako eskaera asinkronoa egiten dio zerbitzariari eta itxaroten geratzen da.

Ondoren, zerbitzariak erabiltzailea existitzen dela ikusten bada aurrera segitzen du eta erabiltzailearen pasahitza egokia den jakiteko kontsulta egiten du, bide batez erabiltzailearen username balioa eskatuz eta emaitza luzapenera itzuliz.

Azkenik, emaitza egokia bada luzapenak erabiltzailearen izena gordetzen du kontuan sartuta dagoela adieraziz, eta bestela errorea ematen du.



5.4 Irudia: Login sekuentzia diagrama


### 5.3.2 Register

Lehenik, erabiltzailea erregistratzeko register formulariora joaten da eta datuak sartu ondoren kontura sartzeko botoiari ematen dio. Pasahitzak berdinak badira luzapenak register motako eskaera asinkronoa egiten dio zerbitzariari eta itxaroten geratzen da.

Ondoren, zerbitzariak adierazitako email bera duen erabiltzailerik ez dela existitzen egiaztatzen du, eta horrela bada erabiltzaile berria users taulan txertatu eta emaitza itzultzen du.

Azkenik, emaitza egokia bada luzapenak login formularioa kargatzen du eta bestela errorea ematen du.


## 5. DISEINUA



5.5 Irudia: Register sekuentzia diagrama

### 5.3.3 Logout

Kontuan sartutako erabiltzaileak kontutik ateratzeko logout botoiari ematen dio, eta luzapenak erabiltzailearen gordetako username balioa ezabatu eta kokatutako orrialdea birkargatzen du.



5.6 Irudia: Logout sekuentzia diagrama


#### 5.3.4 Evaluate selected scope

Hasteko, erabiltzaileak ebaluatu nahi dituen web orrialdeen estekak finkatu eta erabili nahi dituen ebaluatzaile automatikoak aukeratu ondoren, ebaluaketa automatikoa martxan jartzeko botoiari ematen dio eta luzapenak zerbitzarira ebaluaketa automatikoa egiteko eskaera asinkronoa egiten du.

Ondoren, zerbitzariak lehenengo Promise.all bat erabiltzen du aukeratutako ebaluatzaileak paraleloan erabili ahal izateko eta bakoitzarentzako jsonLd txostenak sortzeko klasearen eta scraping egiteko klasearen instantziak sortzen ditu. Instantziak sortuta, ebaluatzaile bakoitzeko, ebaluatu beharreko orrialde bakoitza paraleloan ebaluatzeko bigarren Promise.all bat erabiltzen du, bakoitzarentzako scraping prozesua hasi aurretik.

Scraping prozesuan jasotako datuak jsonld instantzian kargatu eta jsonld.getJsonLd funtzioaren bitartez instantziak barnean gordetzen duen txostena itzultzen du. Ebaluatzaile guztiek amaitzen dutenean, txosten guztiak mergeEvaluatorReports bidez bateratzen dira eta lortutako txostena luzapenera bidaltzen da.


Azkenik, luzapenak txosten berria jasotzean aurretik txostenik dagoen egiaztatu eta horrela bada txosten berria editatzen du, aurreko txostenean editatutako emaitzak ez galtzeko. Txostena jaso eta orrialdea birkargatzen du.



5.7 Irudia: Evaluate selected scope sekuentzia diagrama

### 5.3.5 Remove current report

Lehenik, erabiltzaileak unean kargatutako txostena ezabatzeko botoia sakatu eta ziur dagoela adierazten du. Ondoren, luzapenak alde batetik kargatutako txostena ezabatu eta bestetik txosten horren gurasoaren gordetako Id balioa ezabatzen du. Bukatzeko, luzapenak orria birkargatzen du.




5.8 Irudia: Remove current report sekuentzia diagrama

### 5.3.6 Download current report

Hasteko, erabiltzaileak Download current report botoia sakatu aurretik A, AA eta AAA conformanceLevel balioen artean bat aukeratuko du edo bestela defektuzko AA balioa erabiliko du.

Ondoren, luzapenak gordetako txostena eskuratzen du, eta aukeratutako conformance-Level arabera, maila horretakoak ez diren irizpideak txostenetik kentzen ditu.


Azkenik, txostena fitxategi moduan jaitsi eta luzapenak erabiltzaileari WCAG EM Rerport Tool tresnara joan nahi duen galdetzen dio. Erabiltzaileak baiezkoa esaten badu tab berri batean aipatutako gunea irekitzen du.



5.9 Irudia: Download current report sekuentzia diagrama

### 5.3.7 Upload report file


Lehenik, erabiltzaileak txostena fitxategi batetik igotzeko botoia sakatu eta fitxategia auke-ratzen du. Ondoren, luzapenak igoera gertaeratik txosten berria eskuratzen du eta aurretik txostenik kargatuta dagoen egiaztatzen du. Aurretik txostenik badago, txosten berrian alda-ketak egiten ditu aurreko txostenen editatutako emaitzak ez galtzeko. Azkenik, luzapenak txosten berria gorde eta orrialdea birkargatzen du.



5.10 Irudia: Upload report file sekuentzia diagrama

### 5.3.8 Store current report

Hasteko, erabiltzaileak unean kargatutako txostena datu basean gordetzeko botoia sakatzen du. Luzapenak txostena eta dagokion guraso txostenaren id balioa lortzen du eta ondoren erabiltzailearen kontuaren username balioa lortu eta zerbitzarira txostena gordetzeko eskaera egiten du. Ondoren, zerbitzariak txostena reports datu basean txertatu eta eragiketa ondo egin den itzultzen du. Azkenik, luzapenak eragiketa ondo egin den jakinarazten dio erabiltzaileari.



5.11 Irudia: Store current report sekuentzia diagrama




### 5.3.9 Load stored report

Hasteko, erabiltzaileak datu-basetik txostena kargatzeko botoian sakatzen du eta luzapenak zerbitzarira uneko domeinuko txostenak lortzeko eskaera egiten du. Zerbitzariak reports taulatik domeinu bereko txostenen datu guztiak eskuratu eta itzultzen ditu.

Ondoren, luzapenak jasotako txostenen datuak taula batean erakusten ditu. Erabiltzaileak taulako txostenetako bat aukeratu eta load botoian sakatzen du. Luzapenak aukeraturako txostenaren id-a erabiliz zerbitzarira txosten hori lortzeko eskaera egiten du.

Azkenik, zerbitzariak reports taulatik id bera duen txostena eskuratu eta itzultzen du. Luzapenak txosten berriaren id balioa parentId bezala ezartzen du, eta aurretik txostenik kargatuta dagoen egiaztatzen du. Aurretik txostenik bazegoen txosten berriaren aurrekoaren editatutako emaitzak gordetzen ditu. Luzapenak txosten berria gorde eta orrialde birkargatzen du.



5.12 Irudia: Load stored report sekuentzia diagrama


### 5.3.10 Edit found cases

Hasteko, erabiltzaileak emaitzen taulako irizpide bat hautatzen du. Luzapenak irizpideari dagozkien aurkitutako emaitzak erakusten ditu. Erabiltzaileak emaitzetako batean editatzeko ikonoa sakatzen du.

Luzapenak erabiltzaileak aukeraturako emaitzaren datuak input motako HTML elementuetan jartzen ditu, erabiltzaileak aldaketak egiten ditu eta gordetzeko botoian sakatzen du eta luzapenak aldaketak egin dituen erabiltzailearen username balioa eta kargatutako txostena lortzen ditu.

Luzapenak txostenean aldaketak egiten ditu erabiltzailearen izenean eta txostenaren bertsio berria gordetzen du aurrekoa berridatziz eta kokatutako orrialdea birkargatuz.

## 5. DISEINUA



5.13 Irudia: Edit found cases sekuentzia diagrama

## 5.4 Luzapenaren diseinu grafikoa

Hasteko, kontuan izan beharreko lehen gauza, luzapenak sidenav motakoa izaten segiko duela da, hau da, kokatutako orrialdeko bazter batean kokatzen direnetakoa. Kasu honetan, aurreko urteko diseinua segiz ezkerrean kokatuko da.

Bestalde, erabiltzailearentzako intuitiboa izateko, 5.14 irudian ikusten diren WCAG EM Report Tool tresnaren diseinua segiz, botoi guztiak beraien izaeraren arabera bi taldetan sailkatuko dira: Lehen taldekoak (argazkian ezkerrekoa) funtzionalitate nagusi modukoak izango dira, eta bigarrenekoak ordezkioak.



5.14 Irudia: WCAG EM Report Tool tresnako botoien diseinua

Azkenik, aurten AC-Check beharrean Earler izena erabiltzea erabaki dugu, EARL irisgarritasun ebaluaketarako hiztegi tekniko zehazten duen lengoia bat dela kontuan izanda. Hori dela eta, aurreko urteko argazkiko AC-CHECK testua EARLER testuagatik aldatu dut, baina hasiera batean argazkian azaltzen den irudia mantentzea erabaki dut. Ondorengo ataletako irudietan ikusten da aipatutako irudia.

### 5.4.1 Luzapenaren oinarrizko egoerak


5.15 irudian luzapenaren 3 egoera azaltzen dira. Ezkerreko eta erdiko egoerek erabiltzailea kontuan sartu gabe dagoeneko egoera adierazten dute, lehena dropdown edo atal desplegableak itxita daudela, eta bigarrena aukera guztiak irekita daudela. Eskuineko diseinuak erabiltzailea kontuan sartuta dagoeneko egoera adierazten du.

Orokorrean luzapenak 5 sekzio izango dituela ikus dezakegu:

- **Luzapenaren burukoa:** Tresnaren logoa eta erabiltzaileen kontuetarako aukerak izango ditu.
- **Evaluation scope desplegablea:** Erdiko diseinuak adierazten duen bezala, erabiltzaileak ebaluatu nahi izango dituen webguneak adieraziko ditu zerrenda baten bitartez. Botoia sakatuz zerrendako elementu berri bat gehituko litzateke, dagozkion datu berriak sartzeko aukera emanez.
- **Select evaluators desplegablea:** Berriro ere erdiko irudian begiratu, ebaluatzaile automatikoen checkbox zerrenda egongo da. Dagoeneko erabaki dugun bezala, 6 ebaluatzaile izango dira, eta ebaluatzaileak erabili nahi dituenak aukeratuko ditu.
- **Evaluation options desplegablea:** Kasu honetan erdiko eta eskuineko irudiak konparatu, alde batetik erabilpen kasuetan definitutako User aktorearen 4 erabilpen kasu orokorrak ditugu, eta bestetik, kontuan sartutako erabiltzaileentzako beste bi aukera egongo dira, store current report eta load report from storage.
- **Results atala:** Ezkerreko irudian adierazten den bezala, atal hau denbora gutzian irekita egongo da eta emaitzak kargatuta egonez gero, 3 aukera eskainiko ditu. Lehenik select conformance level, zein mailatarainoko irisgarritasun irizpideen arabera

## 5. DISEINUA


emaitzak ikusi nahi ditugun ikusteko. Bigarrena, summary table, orrialdeko emaitzen kopuruen laburpena erakutsiko duena. Eta azkenik results table, irizpideen arabera sailkatutako emaitza guztiak erakutsiko dituen taula.



5.15 Irudia: Luzapena oinarrizko egoera

### 5.4.2 Erregistratzeko eta kontuan sartzeko egoerak

5.16 irudian adierazten den bezala, egoera bakoitzean formulario bat besterik ez dugu izango, atzera joateko cancel botoia eta kasu bakoitzeko erregistratzeko edo kontuan sartzeko botoiekin. Kontuan izan irudiak moztuta daudela eta luzapenak denbora gutzian irekitako nabigatzailearen altuera osoa beteko duela. Bi egoera hauetan, formularioen azpian ez da ezer gehiago egongo.



EARLER

---


Register

Email

Username

Password

Repeat password



EARLER

---

Login


Email

Password

5.16 Irudia: Kontuan sartzeko eta erregistratzeko egoerak

### 5.4.3 Datu-basean gordetako ebaluaketa txostenak kargatzeko egoera

5.17 irudiko egoeran, taula bat erakutsiko da luzapena unean kokatutako domeinuko ebaluaketa txosten guztien datuekin. Honen ideia, erabiltzaileak kargatu nahiko lukeen txostenaren lerroa sakatzuz aukeratu, eta ondoren Load botoian sakatzuz kargatzeko aukera izango luke. Aukeraketa egitean lerroaren fondoa aldatuko litzateke.



EARLER

---

Stored reports:

Id	UploadedBy	ParentId
1	Julen	
2	a	1
4	Mikel	2
7	Julen	2

5.17 Irudia: Datu-baseko txostenak kargatzeko egoera






#### 5.4.4 Emaidza taulak

Emaidza tauletarako egitura aurreko urtean oinarritua izango da, eta dagokien irizpide bakoitzerako lortutako emaitzak errepresentatzeko erabiliko den kolore paleta ere, aurreko urtean AC-Check tresnarako erabili zen bera izango da, ikus [5.18](#) eta [5.1](#) irudiak.

Report content:

P	F	CT	NP	NC			
2	5	13	0	30			
Standard			P	F	CT	NP	NC
1	Perceivable		0	3	3	0	14
2	Operable		0	1	6	0	10
3	Understandable		1	1	4	0	4
4	Robust		1	0	0	0	2

5.18 Irudia: Aurreko urteko taulen diseinua

Emaidza mota	EARL terminoa	Colore kodea	Kolorea
Bete da	Passed	#C8FA8C	
Hutsegitea	Failed	#FA8C8C	
Abisua	CantTell	#F5FA8C	
Ezin da aplikatu	Inapplicable	#FFFFFF	
Ez da egiaztatu	Untested	#8CFafa	

5.1 Taula: Emaidzetzako kolore paleta

## 5.5 Irisgarritasun txostenen formatua

Hasteko, JSON-LD formatua JSON formatuaren estentsio moduko bat dela esan dezakegu, datuen kontestuak eta esanahiak zehazteko anotazio edo aurrizki modukoak zehazten dituelako. Gure kasuan aurrizki horiek oso interesgarriak dira, txostenean estandarretan oinarritutako emaitzak erabil ditzakegulako. Gainera, WCAG EM Report Tool tresnak JSON-LD formatuko aurrizkiak erabiltzen ditu tresnako atal bakoitzeko datuak txostenetik eskuratzeko. Hori dela eta, JSON-LD formatua erabiltzera behartuta gaude.

Mauve++ ebaluatzaileak esportatzeko eskaintzen duen JSON-LD egitura txantilo mo-  
duan erabiltzea pentsatu genuen, baina WCAG EM Report Tool tresnara igotzen saiatzean  
datu asko galtzen direla ikusi dut. Hori ikusita, zuzenean Report Tool-aren GitHub errepo-  
sitorioan begiratu eta beste adibide batzuk aurkitu ditut <sup>1</sup>.

Adibide horiek ez dute gorde behar ditudan datu guztientzako eremuak, baina bai daturik  
galdu gabe karga daitezkeela Report Toolean. Beraz, Mauve++ eredutik eta aurkitutako  
adibideetatik interesatzen zaizkidan zatiak hartu eta egokitzapenak egin ditut noizbehinka  
probak eginez datu guztiak irakurtzen segitzen dutela ziurtatzeko.

Ondoren, lortu dudana egitura zatika aztertuko dugu. Hasteko, @context atala:

```
{
  "@context": {
    "@vocab": "http://www.w3.org/TR/WCAG-EM/#",
    "wcag2": "http://www.w3.org/TR/WCAG21/#",
    "earl": "http://www.w3.org/ns/earl#",
    "dct": "http://purl.org/dc/terms/",
    "wai": "http://www.w3.org/WAI/",
    "sch": "http://schema.org/",
    "xmlns": "http://xmlns.com/foaf/0.1/",
    "ptr": "http://www.w3.org/2009/pointers#",
    "evaluationScope": {
      "@id": "step1",
      "@type": "EvaluationScope"
    },
    "siteScope": "step1a",
    "conformanceTarget": {
      "@id": "step1b",
      "@type": "@id"
    },
    "accessibilitySupportBaseline": "step1c",
    "additionalEvalRequirement": "step1d",
    "structuredSample": {
      "@id": "step3a",
      "@type": "Sample"
    },
    "auditSample": "step4",
    "siteName": "sch:name",
    "website": "wcag2:dfn-set-of-web-pages",
    "webpage": "wcag2:dfn-web-page-s",
    "Assertion": "earl:Assertion",
    "test": {
```

<sup>1</sup><https://github.com/w3c/wcag-em-report-tool/tree/master/docs/examples>

```

    "@id": "earl:test",
    "@type": "@id"
  },
  "assertedBy": {
    "@id": "earl:assertedBy",
    "@type": "@id"
  },
  "subject": {
    "@id": "earl:subject",
    "@type": "@id"
  },
  "result": "earl:result",
  "mode": {
    "@id": "earl:mode",
    "@type": "@id"
  },
  "outcome": {
    "@id": "earl:outcome",
    "@type": "@id"
  },
  "locationPointersGroup": "ptr:PointersGroup",
  "elementPointersGroup": "ptr:PointersGroup",
  "title": "dct:title",
  "description": "dct:description",
  "hasPart": "dct:hasPart",
  "creator": {
    "@id": "dct:creator",
    "@type": "earl:Assertor"
  },
  "id": "@id",
  "type": "@type"
},

```

"@context" atalean definitutako objektuak erreferentzia moduan jokatzen dute, hau da, adibidez "earl": "http://www.w3.org/ns/earl" jarrita, ondoren "earl:termino bat" bezala erabil dezaket, kasu honetan EARL lengoaiak definitzen duen termino zehatz bati erreferentzia egiteko. Modu horretara datuak partekatzerako garaian formatu eta datu mota "estandarrik" erabil daitezke.

Ondoren, ebaluaketari buruzko datuak definitzeko zatia aztertuko dugu:

```

"type": "Evaluation",
"@language": "en",
"title": "Accessibility Evaluation Report for ###---webgunea---### website",
"commissioner": "https://github.com/larraagirrejulen/GrAL/tree/main/ac_check%20(react)",
"dct:date": "###---data---###",
"assertors": [
  {
    "id": "._:AccessMonitor",
    "type": "earl:Assertor",
    "xmlns:name": "AccessMonitor",
    "description": "https://accessmonitor.acessibilidade.gov.pt"
  },

```



```

    ###---ebaluatzaile gehiago---###
  ],
  "creator": {
    "id": " _:assertors",
    "xmlns:name": " ###---ebaluatzaile izenak & bidez konkatenatuak---### "
  },
  "evaluationScope": {
    "website": {
      "id": " _:website",
      "type": [
        "earl:TestSubject",
        "sch:WebSite"
      ],
      "siteName": "###---webgunearen esteka---###",
      "siteScope": "###---ebaluatuko diren orrialdeen estekak ', ' bidez
        separatuak---###"
    },
    "conformanceTarget": "wai:WCAG2AAA-Conformance",
    "accessibilitySupportBaseline": "Google Chrome latest version",
    "additionalEvalRequirement": "The report will include location pointers to
      the cases found for each result"
  },
  "structuredSample": {
    "webpage": [
      {
        "id": "https://www.ehu.eus/es/home",
        "type": [
          "earl:TestSubject",
          "sch:WebPage"
        ],
        "description": "https://www.ehu.eus/es/home",
        "source": " _:website",
        "title": "Inicio - UPV/EHU",
        "tested": true
      },
      ###---orrialde gehiago---###
    ]
  },
  "auditSample": [],
  "dct:summary": "Some errors where found..."
}

```

"title", "comisioner", "dct:date", "creator" barruko "xmlns:name", eta bukaeran azaltzen den "dct:summary" balioek, 5.21 irudian ikusten diren eremuak betetzen dituzte, "evaluationScope" objektuko balioek 5.19 irudiak ikusten direnak, eta "structureSample-ko balioek 5.20 irudiak ikusten den pausuko Structured Sample Web Pages atala.

## Step 1: Define the Evaluation Scope

Define the overall parameters and scope of the evaluation. Ideally, this is done with the person who commissioned the evaluation (who may or may not be the website owner), to ensure common expectations about the scope of the evaluation.

Step 1: Define the Evaluation Scope

Website name Show info +

Scope of the website Show info +

WCAG Version Show info +

Conformance target Show info +

Accessibility support baseline Show info +

Additional evaluation requirements Show info +

### 5.19 Irudia: WCAG EM Report Tool 1.pausua

## Structured Sample Web Pages Show info +

<b>Sample page Inicio - UPV/EHU</b> <span>✕</span>	
Short name:	Address (URL) or description:
<input type="text" value="Inicio - UPV/EHU"/>	<input type="text" value="https://www.ehu.eus/es/home"/>
<b>Sample page alumni</b> <span>✕</span>	
Short name:	Address (URL) or description:
<input type="text" value="alumni"/>	<input type="text" value="https://www.ehu.eus/es/web/ehualumni"/>
<b>Sample page profesorado</b> <span>✕</span>	
Short name:	Address (URL) or description:
<input type="text" value="profesorado"/>	<input type="text" value="https://www.ehu.eus/es/irakasleak"/>

### 5.20 Irudia: WCAG EM Report Tool 2.pausuko azpiatala

## Step 5: Report the Evaluation Findings

Provide additional information about the evaluation that you want included in the report. The evaluation findings that you entered in the previous step are included below under 'Detailed audit results' for review and to help you write the executive summary.

Step 5: Report the Evaluation Findings

Report title Show info +  
 Accessibility Evaluation Report for https://www.ehu.eus/ website

Evaluation commissioner Show info +  
 https://github.com/larraagirrejulen/GrAL/tree/main/ac\_check%20(react)

Evaluator Show info +  
 AccessMonitor & AChecker & MAUVE & A11Y & Pa11y & Lighthouse

Evaluation date Show info +  
 17/6/2023, 18:01:17

Executive summary Show info +  
 Some errors where found...

### 5.21 Irudia: WCAG EM Report Tool 5.pausua

Aurreko atalean ikusten den "auditSample"atributuko zerrendak irisgarritasun irizpideen emaitzak jasoko ditu. Emaitzak honako formatua izango dute:

```
{
  "type": "Assertion",
  "test": "wcag2:##--- irizpidearen identifikatzailea---##",
  "conformanceLevel": "##--- irizpidearen arabera A, AA edo AAA ---##",
  "subject": "_:website",
  "result": {
    "outcome": "earl:##--- emaitza ---##",
    "description": "##--- deskripzioa ---##"
  },
  "hasPart": []
}
```

Garrantzitsua da "test"eta "outcome"balioak zehazki "earl"eta "wcag2"zehazten dituzte-netakoak izatea, bestela emaitzak ez dira ondo kargatzen. Outcome balioak honakoak izan daitezke: "earl:passed", "earl:failed", "earl:cantTell", "earl:inapplicable"edo "earl:undefined". Irizpideen identifikatzaileak dagokien webgunean aurki daitezke <sup>2</sup>.

Emaitza horietako bakoitzak, "test"eremuan adierazten den irizpiderako webgune osoak jasotako emaitza adierazten du. Baina adibidez ebaluaketa hainbat orrialde ezberdinetan

<sup>2</sup><https://www.w3.org/WAI/WCAG21/quickref/>

rako bada, kokatutako irizpide bera duten orrialde ezberdinetako emaitza guztiak "hasPart" atributuko zerrendan txertatzen dira. Gainera, hasPart zerrendan orrialde bererako hainbat objektu egon daitezke "outcome" balioen eta emaitza bera lortu duten ebaluatzaileen arabera multzokatuak.

"hasPart" eremuko objektuek honako egitura izaten dute:

```
{
  "type": "Assertion",
  "testcase": "wcag2:##--- irizpidearen identifikatzailea---##",
  "assertedBy": [
    {
      "assertor": "##--- ebaluatzailea ---##",
    }
  ],
  "asserted": "##--- ebaluatzaile gehiago ---##",
  "modifiedBy": [],
  "lastModifier": "",
  "subject": "##--- ebaluatutako web orrialdea---##",
  "mode": "earl:automatic",
  "result": {
    "outcome": "earl:##--- emaitza ---##",
    "description": "##--- deskribapena ---##",
    "locationPointersGroup": []
  }
}
```

Egitura horren bitartez, Report Tool-eko 4.pausuko eremuak betetzen dira, ikus [5.22](#) irudia.

"lastModifier" eta "modifiedBy" eremuak aurrerago emaitzetan eskuz aldaketak egin diren eta zeinek egin dituen jakiteko jarri ditut, baina dagokion funtzionalitatea garatzean baliteke aldaketak izatea.

Kontuan izan beharreko beste gauza bat "locationPointersGroup" da. Report Tool tresnak ez ditu kode zatietarako erreferentziak irakurtzen, baina nik luzapeneko taulatik nabarmendu ahal izateko, HTML elementuen path modukoak beharko ditut. Zerrenda horren bitartez, ideia aurkitutako elementu bakoitzeko objektu bat txertatzea da, dagokion beharrezko informazioarekin.

Oraingoz zerrenda horretako elementuak honela definitu ditut:

```
{
  "id": "_:pointer",
  "type": "ptr:groupPointer",
  "assertedBy": [
    "##--- ebaluatzailea ---##",
    "##--- ebaluatzaile gehiago ---##"
  ],
  "ptr:expression": "##--- path moduko balioa ---##",
  "description": "##--- path horri dagokion HTML elementua ---##",
}
```

**1 Perceivable**

**1.1 Text Alternatives**

**1.1.1: Non-text Content** Level A

[Understanding 1.1.1](#) [How to meet 1.1.1](#)

All non-text content that is presented to the user has a text alternative that serves the equivalent purpose, except for the situations listed below. [Show full description](#) +

**Entire sample**

Outcome: **Cannot tell** Observations: [View in report](#)

Webqune emaitzaren deskripzioa

**Show web pages to enter individual results**

**Results for: Inicio - UPV/EHU**

Outcome: **Passed** Observations: [View in report](#)

Inicio - UPV/EHU orrialdeko deskripzioa

**Results for: alumni**

Outcome: **Cannot tell** Observations: [View in report](#)

alumni orrialdeko deskripzioa

5.22 Irudia: WCAG EM Report Tool 4.pausua irizpide bateko emaitzak



# Implementazioa

Kapitulu honetan orain arte definitzen joan garen tresnaren implementazioari buruz hitz egingo dugu, hau da, aurretik pentsatutakoa azkenean nola garatu dugun azalduko dugu<sup>1</sup>. Azalpenak 3 ataletan banatzen dira: lehena luzapenaren implementazioa 6.1, bigarrena zerbitzariaren implementazioa 6.2 eta azkena implementazioa aurrean joan ahala aurkitu ditugun arazo ezberdinak azaltzeko 6.3.

## 6.1 Luzapenaren implementazioa

Atal honetan, luzapena implementatu ahal izateko alderdi ezberdinak azalduko ditugu: React frameworka zer osagaiekin eta nola antolatu dugun 6.1.1, osagai horiei estiloa nola eman diegun 6.1.2 eta zeintzuk izan diren erabili ditugun funtzio garrantzitsuenetariko batzuk 6.1.3.

Gainera, luzapenak azkenean nolako itxura hartu duen, funtzionalitate ezberdinak grafikoki nola erakusten diren 6.1.4 eta garatu diren funtzionalitate gehigarriak zeintzuk diren 6.1.5 ere azalduko ditugu.

### 6.1.1 React "components" edo osagaiak


React implementazioari dagokionez, kodea hainbat osagaietan banatu dut horietako bakoitzak duen ardura kontuan izanda. Orokorrean, diseinu grafikoan azaltzen diren atal bakoitzeko osagai bat sortu dut, beraien artean datuak pasatu behar direnean, arakatzailerak eskaintzen dituzten storage aukera ezberdinak erabiliz.

Gainera, behin baina gehiagotan erabiltzen ditudanez, berrerabiltzeko bi osagai ere sortu ditut `Button.tsx` eta `DropdownSection.tsx` fitxategietan.

6.1 irudian ikus daitezke luzapeneko osagai guztiak.

---

<sup>1</sup>Erabilitako tresna eta teknologia guztiak eranskinen ataleko "Erabilitako tresnak" 9.3 atalean azaltzen dira



6.1 Irudia: Luzapeneko React osagaiak

Hasteko, luzapenaren osagai nagusia, hau da, gainontzeko guztiak biltzen dituena, `Extension.tsx` fitxategiko **Extension** osagaia da. Honek luzapenaren egoeraren arabera erabiltzaileari erakutsi beharreko egitura orokorra antolatzen du.

Horretaz aparte, aurrerago ikusiko dugun hiru funtzionalitate implementatzeko erabili dut: luzapena ezkutatzeko, konfigurazio orrira joateko eta konfigurazio orriko aukerara baten arabera luzapenak kokatutako orrialdea alde batera eramateko edo tapatuz gainean jartzeko.

Kodeak itzultzen duen zati garrantzitsuena 6.2 irudian ikus daiteke.

```
<div className="img_container">
  <img
    alt="extension logo"
    src={getImgSrc("icon128")}
    onClick={() => window.open("https://github.com/larraagirrejulien/GrAl", '_blank')}
  />
</div>

{manageStoredReports ? <>
  <StoredReportManagement
    setManageStoredReports={setManageStoredReports}
    authenticationState={authenticationState}
  />
</> : <>
  <UserAuthentication
    authenticationState={authenticationState}
    setAuthenticationState={setAuthenticationState}
  />
  { authenticationState !== "logging" && authenticationState !== "registering" && <>
    <ScopeDefinition />
    <EvaluatorSelection />
    <EvaluationOptions
      authenticationState={authenticationState}
      setLoadingReports={setManageStoredReports}
    />
    <ReportResults />
  </> }}
</>
```

6.2 Irudia: Extension osagaiak itzultitako zati nagusia



Ondoren, **UserAuthentication** osagaia azalduko dugu. Osagai honen eginkizuna, luzapenaren egoeraren arabera erabiltzaileak identifikatzeko dituen aukerak eskaintzea da, hau da, kontuan sartu gabe badago Login eta Register botoiak, kontuan sartzen badago Login formularioa, erregistratzen badago Register formularioa eta azkenik kontuan sartuta badago bere username izena eta Logout botoia.

6.3 irudian ikus daiteke kodearen zati garrantzitsuena. Aipatzeko, argazkian azaltzen diren LoginForm eta RegisterForm fitxategi berean kokatzen diren formularioak kudeatzeko bi osagai dira.

```

<div id="extension_authentication_section">
  {authenticationState === "notLogged" ? <>
    <Button
      classList={"primary"}
      onClickHandler={() => setAuthenticationState("logging")}
      innerText={"Login"}
    />
    <Button
      classList={"secondary spaced"}
      onClickHandler={() => setAuthenticationState("registering")}
      innerText={"Register"}
    />
  </> : authenticationState === "logging" ?
  <LoginForm setAuthState={setAuthenticationState} />
  : authenticationState === "registering" ?
  <RegisterForm setAuthState={setAuthenticationState} />
  : <>
  <label className='userNameLabel'>
    {"@" + authenticationState}
  </label>
  <Button
    classList={"secondary spaced"}
    onClickHandler={onLogoutHandler}
    innerText={"Logout"}
  />
  </> }
</div>

```

6.3 Irudia: UserAuthentication osagaiak itzultitako zati nagusia

**ScopeDefinition** osagaiaren aldetik, erabiltzaileak ebaluatu nahi dituen orrialdeak zerrenda batean txertatzeko aukerak ematen ditu, beti ere, erabiltzaileak sartutako estekak unean kokatutako domeinukoak dituela kontuan izanik. Zerrenda scope izeneko aldagai batean gordetzen da, eta dagozkion elementuak eskusteko ul motako zerrenda ordenatu baten barruan txertatzen dira map baten bitartez, ikus 6.4 irudia.

```

<ul id="extensionScopeInputList">
  {scope.map((webPage:any, index:any) => (
    <li className="scopeInput" key={index}>
      {editItemIndex === index ? (

```

6.4 Irudia: Erabiltzaileak sartutako web orrialdeak zerrendatzeko

**EvaluatorSelection** osagaiari buruz aipatzeko bakarra, 6.5 irudiko defaultCheckboxes aldagaieko ebaluatzaile automatiko bakoitza checkbox moduan erakutsi, eta erabiltzaileak

## 6. INPLEMENTAZIOA

egindako aldaketak gordetzeaz arduratzen dela da. 6.6 irudian zerrendatzeko erabiltzen den kodea ikusten da.

```
const defaultCheckboxes = [
  { checked: false, label: "AccessMonitor - Website", href: "https://accessmonitor.acessibilidade.gov.pt/"},
  { checked: false, label: "AChecker - Website", href: "https://achecker.achecks.ca/checker/index.php"},
  { checked: false, label: "Mauve - Website", href: "https://mauve.isti.cnr.it/singleValidation.jsp"},
  { checked: false, label: "Ally - Library", href: "https://github.com/ainspector/ally-evaluation-library"},
  { checked: false, label: "Pally - Library", href: "https://www.npmjs.com/package/pally"},
  { checked: false, label: "Lighthouse - Library", href: "https://developer.chrome.com/docs/lighthouse/overview/" }
];
```

6.5 Irudia: Defektuzko ebaluatzaileen aukeraketarako checkbox elementuen egoera

```
{checkboxes.map((checkbox:any, index:any) => (
  <div className="checkbox-wrapper">
    <div className="checkbox">
      <input
        type="checkbox"
        checked={checkbox.checked}
        onChange={()=>handleCheckboxChange(index)}
        className={checkbox.checked && "checked" }
